



Durangok emakumeen goi mailako errugbi txapelketa hartuko du zapatuan

Durango Rugby Taldeak emakumeen maila handiko errugbi txapelketa antolatu du biharko. Arripausetan izango da. DRT taldeaz gainera, Bera Bera, Sarako Izzarak, Gaztedi, Hernani eta Neskarians taldeak arituko dira. Azken hori talde guztietako jokalariekin sorturiko taldea izango da. • 29



1936ko irailaren 25ean gertaturikoak "gogoratzeko ekitaldia" egingo dute domekan

Erreportajea • Gerediaga Elkar-teak, Durango 1936 elkarteak eta Durangoko Udalak ekitaldia egingo dute domekan, "memoria historikoan sakontzen jarraitzeko". 12:00etan izango da, Ezkurdin. • 2-3

Euskarari "arnasgunea" eskainiko dioten jai "parte hartzaileak" aurkeztu dituzte

Jaiak • Durangoko txosnek jaietako egitaraua aurkeztu dute. Txosnagune-ko txupina Bilgune Feministak jaurtiko du. • 5



Edan taldea zuzenean ikusteko azken aukera



Sanmigelak • 11 urteko etenaren ondoren, Edan erromeria taldea kontzertu bakar bat emateko igoko da berriro oholtzara. Emanaldia Iurretako plazan egingo dute, irailaren 30ean. 'Azken ardau dantza' izango dela diote, "azkenengo-azkenengo" kontzertua. • 16-17

"1936ko irailaren 25eko gertakizunen ondorioz hildako guztiak gogoratzeko ekitaldia" egingo dute Durangon

Gerediaga Elkarateak, Durango 1936 elkarteak eta Durangoko Udalak ekitaldi bi antolatu dituzte aste honetarako, "memoria historikoan sakontzen jarraitzeko"



Durangoko frontoi zaharra. GEREDIAGA ELKARTEA

DURANGO • JONE GUENETXEA

1936ko irailaren 25ean Ezkurdin gertaturiko bonbardaketaren ondorioak gogoratu eta aztertzeke ekitaldiak antolatu dituzte, aste honetarako, Durangon. Gerediaga Elkarateak eta Durango 1936 kultur elkarteak berbaldia egin zuten eguaztenean, testuinguru historikoa aztertzeke. Jon Irazabalek, Jimi Jimenezek eta Pedro Barrusok gaiaren inguruko datuak eman zituzten. Domekara begira, elkar-te biek oroimen ekitaldia egingo dute udalagaz batera, Ezkurdin, 12:00etan.

Gaiaren inguruan, Jon Irazabal Iurretako historialariak bonbardaketa gertatu zen sasoiari bizi zen egoera gogoratu du. 1936ko irailan, Mola jeneralak Gipuzkoa osoa menperatu zuen. Elgoibarren zegoela, azaroan Bilbora heltzea zuen helburu. Baina frontean zailtasunak aurkitu zituen. "Bilbora heltzeko Molak zituen planen barruan irailaren 25ean bonbardaketa bi gertatu ziren. Bata Bilbon, eta bestea Durangon", azaldu du Irazabalek. Durangoren kasuan, 10:30

inguruan hegazkin bakar batek lau bomba jaurti zituen Durangon. "Frontoiaren ondoko kalean jausi zen eurretari bat, Barandiaran kalean. Horman zuloa eginda, bonbak frontoi barruan egin zuen eztanda. Ondorioz, frontoian pilotan jokatzen eta bertan ikusle legez zeuden 15 lagun hil ziren", gehitu du Irazabalek. Milizianoak eta Gipuzkoako errefuxiatuak ziren.

Bonbardaketa horren ondorioz, miliziano talde batek Durangoko kartzela asaltatu zuen. "Telefonikako eraikina zegoen lekura joan eta kartzela hartan zeuden 21 preso hilerrira eraman eta fusilatu egin zituzten. Uste da pertsona horiek sublebatu frankisten alde egiteagaitik zeudela kartzelan", gehitu du Irazabalek. "Testuinguru horretan kontuan izan behar da Durangoko erreketek antolatuta zeudela eta entrenamendu militarrik egiten zizutela Urkiolan eta Aramaion. Izan ere, uztailearen 18aren inguruan sublebazioan parte hartzeko asmoa zuten, baina Durangoko Guardia Zibilarren babesa izan ez zuten, asmo hori bertan behera

utzi zuten", azaldu du Iurretako historialariak. Bilboko bonbardaketaren kasuan, milizianoek Cabo Quilates eta Altuna Mendi kartzela-ontziak asaltatu eta 39 atxilotu hil zituzten.

Frankismoko fusilamenduak

"1936ko fusilamenduen inguruko biktimei buruz berba ez egitea, 1937ko Martxoaren 31ko bonbardaketako biktimei buruz berba ez egitea eragin zuen urte askoan. Eta, jakina, geroago epaiketetan eta sumarioetan epaitu eta fusilatutakoei eta kartzelaratutakoei buruz ere ez. Durangon ezkerrean garbiketa saiakera bat egon zen zuzenean edo zeharka, 36ko hilerriko fusilamenduetan parte hartzea egotzita", azaldu du Durango 1936 kultur elkarteke Jimi Jimenezek. "Frankismoak Durango hartu zuenean, dagoeneko Santoñan entregatu zirenei epaiketa bat egin zieten eta informazioa eskatzen hasi ziren Guardia Zibilar, tokiko Falangeari eta udalari. Informe horien bitartez epaitu eta heriotzara kondenatu zituzten edo kartzela zigorrera.

Eskubi edo Fernandez Gorroño lako pertsonak Durango gorri separatisten karguak izatearren 1936ko hilerriko fusilamenduetan lotu zituzten eta eurak ere fusilatuta hil zituzten", gogoratu du Jimenezek. Zehazki, sei pertsona heriotza zigorrera kondenatu zituzten Durangon: Juan Fernandez Gorroño, Juan Eskubi Urriaga, Raimundo Uriarte, Anastasio Arnaiz, Juan Bautista



Durangoko kartzela. GEREDIAGA ARTXIBOA

García eta Luciano Iturrieta. Defentsa Batzorde lokalean errepublika sasoiari parte hartu zuten.

Jaurlaritzaren ikerketa

Pedro Barruso historialariak azaldu duenez, 1936ko hilerriko fusilamenduetan gertatu zirenean Eusko Jaurlaritza oraindino sortu barik zegoen. Geroago, Bilboko kartzelatan gertaturikoaren harira, Durangon gertaturikoa ikertzen hasi ziren. Etxebarria Novoa Bizkaiko Gobernadore Zibilar apur bat iker-tu zuen. Bere memorietan horri buruz idatzi zuen. 61 lagun prozesatu zituzten, baina ezerezean geratu zen", gaineratu du Barrusok.

Ekitaldien antolatzaileek prentsa oharrean azaldu dutenez, "lehenengoz 1936ko irailaren 25ean gertaturikoa eta horrek izandako ondorioak modu bateratuan eta izan ziren moduan azaltzeko ariketa egingo dugu Gerediaga Elkar-teak eta Durangoko 1936 Kultur Elkar-teak, era horretan, memoria historikoan sakontzen jarraitzeko". Gerediagak dioenez, "1936ko altxamendu faxistak sufrimendu handia ekarri zuen Durangaldera. Bonbardaketak izan ziren hainbat herritan, bortitzenak Otxandion eta Durangon, azken horretan hainbat bider gainera. Domekako ekitaldiagaz Durangoko lehenengo bonbardaketan eta haren ondorioz egunean bertan zein hurrengo urteetan izan ziren hildakoak gogoratu gura ditugu egiaren, justiziaren eta erreparazioaren izenean, eta gure herriaren askatasunaren alde borrokatu zirenen aldeko konpromisoa berretsi gura dugu".

Gai delikatu eta zaila izanda, oroimen ekitaldia antolatzeak iritzi kontrajarriak sortu ditu (iritzi gutuna 12. orrialdean).

Galdera asko eta erantzun gutxi fusilamenduko argazkiaren inguruan

DURANGO • J.G.

Gerediaga Elkarteko Jose Mari Uriarteren eskuetara heldu zen argazki honek 1936ko irailaren 25eko fusilamenduak jasotzen ditu. Jon Irazabal historialariak dioenez, posible da argazkia erre-
krazio bat izatea. Irudia Germán Zorraquín argazkilariak ateratakoa da. "Indizioek esaten didate erreproduzio-errekonstrukzio" bat dela. "Osa gatxa iruditzen zait

pentsatzea egun hartan Germán argazkilaria Ermodoko bere estudiantik kamera astuna hartu eta hilerriraino joan zela". Irazabalek irudiaren errealismoa azpimarratu du. "Brutalmente errealista da. Argazkian zazpi atxilotu fusilatzearen zain agertzen dira, lepoz. Euren oinen aurrean gorpuak agertzen dira, aurretik fusilatutakoena izan daitezkeenak. Eskuman, fusilatutako izateko zain daudenak

daude. Data batean kokatzekotan, argazkia 1941a baino lehenago aterata egon behar dela dio Irazabalek, kapera zaharra agertzen delako, eta ondoren berriztu egin zutelako. Irazabalek azaltzen duenez, interesgarria izango litzateke udal artxiboa ikertzea, ikusteko 1936tik 1941era Foto Germani enkargurik egin ote zioten jakiteko, Otxandioko bonbardaketan egin zuten legez.



Fusilamenduaren errekreazioa izan daitezkeen argazkia. GEREDIAGA ELKARTEA

1936ko irailaren 25a, Durangon

1936ko irailean II. Errepublikak agintzen zuen Durangon, matxinatuek ia Araba eta Gipuzkoa osoa hartuta zeukaten arren. Hargatik, Durango milizianoen egongune garrantzitsua zen.

Udalean matxinatuen aldekoek gehiengoa zeukaten arren, behin behineko udal errepublikazalea izendatu zuten. Euskadiko Gobernu urriaren 7an onartu zuen Errepublikak.

Irailaren 25ean faxistek Ezkurdiko frontoia bonbardatu zuten eta bertan ziren 15 miliziano hil zituzten. Hilketan bidegabetzat jota, hainbat lagunek Durangoko kartzela indarrez hartu eta matxinatuen alde egitearren preso zeuden 22 pertsona hilerrira eroan zituzten. Bertan fusilatu zituzten, aurretiko epaiketak gabe.

Geroago, faxistek antolatu zuten justizia sistemak gutxienez sei lagun epaitu zituen gertaeron ardura zutelakoan.

Ezelako bermerik bako epaiketotan, erruduntzat hartu eta fusilatuta hiltzera kondenatu zituzten.

Aurten, Gerediaga eta Durango 1936 elkarteek, Durangoko Udalaren laguntzaz, bi ekitaldi prestatu dituzte. Lehenengoa irailaren 21ean, gorago aipatutako gertaera horien nondik norakoak azaltzeko mahai-ingurua. Bigarrena, irailaren 25ean Ezkurdin egingo dena. Ekitaldi horretan 1936ko irailaren 25eko gertaeretan hildako guztiak hartuko dira gogoan.

Fusilatuetako bat, Juan Eskubi Urtiaga durangarra, Durangoko defentsa batzordeko kidea zen, aginte legitimoak hartarako izendatua. 1938ko urriaren 24an fusilatu zuten faxistek, Derioko hilerrian. Zor diegu eta zor diegu durangarrok duten baino leku handiagoa gure memorian.

Durango 1936 Kultur Elkartea

Durangaldeko albisteak jaso gura dituzu?



Bidali ALTA
688 635 041
telefono zenbakira

Batu Anbotoko
Whatsapp taldera!



anboto

Sukaldaritza tailerrak, hamaiketakoak eta pintxo-potea, Durangoko merkatu plaza dinamizatzeko prest

Soloko elkarteak eta udalak ekintza sorta aurkeztu dute merkatu plaza biziarazteko. Zapatuan egingo dute lehenengo ekintza, sendabelarrak kozinatzenko tailerragaz



Txorria Nuen Maite tabernako kideek alkoholik bako cocktail tailerra egin zuten umeekin, maiatzean.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Osasuntsua, bertakoa eta gozoa. Durangaldeko ekoizleek ekintza sorta aurkeztu dute Durangoko merkatu plaza eta hornidura merkatua biziarazteko. Argi daukate: ekintzekin herritarrek merkatu plazako giroan murgildu gura dituzte, hornidura merkatuan bertako produktuen berri izan eta horiek kontsumitzera bultza-

tzeko. Ekoizleek urtea amaitu arteko plangintza aurkeztu dute, lau kategoriatako ekintzak bertan batuta. Hile bakoitzeko lehenengo zapatuan, adibidez, askotariko ekoizleak gonbidatuko dituzte merkatua: oilo-salda, hanburgesa, kontserba, ahuntz-gazta eta ore amaz egindako ogi ekoizleak. Merkatuan erosketaren bat egiten duenak txartel bat eskuratuko

du produktu horiek dastatzeko. Horrez gainera, herritarren parte hartzeagaz osaturiko sukaldaritza tailerrak ere egingo dituzte. Mokatxoak ere egongo dira: bertako produktuekin sorturiko hamaiketakoak batetik, eta hornidura merkatuko produktuekin egindako pintxo-pote berezia bestetik.

Ekintzak dinamizatzen dabilen ekoizleatariko bat Ana De la Maza

garaitarra da. Adierazi duenez, ekintzen "helburua merkatu plazari erabilpena ematea da, herritarrek bertan murgiltzea, eskualdean ekoizten diren produktuek ezagutarazita eta inguru horretan ekintzak antolatuta". Zapatu honetan emango diote hasiera ekintza sortari. Mentxu Amunategiren eskutik, sendabelarrekin osaturiko sukaldaritza tailerra egongo da, 10:00etatik 12:00etara.

"Norabide biko lana"

Baserritarren ekintzetan, Durangoko Udalak ere parte hartuko du. Iker Urkiza zinegotziak adierazi duenez, merkatu plazak eta hornidura plazak "norabide biko lana" behar dute. "Batetik, epe luzerako proiektu bat diseinatzen gabiltza, merkatua sakonetik aldatzeko eta berritzeko. Bestetik, merkatua dinamizatzeko ekintzak antolatzen gabiltza", azaldu du Urkizak. Jorge Varela zinegotziak ere ildo beretik berba egin du: "Argi dugu merkatu plazaren biziberritzea lehentasun bat dela. Funtsezkoa da eraikina berritzea, merkatua herriko komertzioaren zutabe izan dadin, bertako produktuek, kalitatezkoak eta gertuko tratua eskaini ditzan". Joan zen ekainean, udalak merkatuko eraikina eraberritzeko proiektua aurkeztu zuen, bertan inplikaturako eragileen aurrean.

Ekintza bakoitzaren xehetasunak egunik egun

Irailak 24. Sukaldaritza tailerra: sendabelarrak sukaldean. Gidaria: Mentxu Amunategi. 10:00-12:00

Irailak 29. Pintxo-potea hornidura merkatuan. 18:00-20:00

Urriak 1. Ekoizle gonbidatua: Delikatetxe. Oilo-salda, kontserbak eta hanburgesak.

Urriak 15. Tokiko produktuekin osaturiko hamaiketakoak: Amillena. Udazken oparoa. 11:00-13:00

Urriak 27. Pintxo-potea hornidura merkatuan. 18:00-20:00

Azaroak 5. Ekoizle gonbidatua: Otxauntz. Ahuntz-gazta.

Azaroak 19. Sukaldaritza tailerra: Familiako sukalde. Gidaria: Amillena. 10:00-12:00

Azaroak 24. Pintxo-potea hornidura merkatuan. 18:00-20:00

Abenduak 3. Ekoizle gonbidatua: Patxikobaso. Ore amaz egindako ogia.

Abenduak 24. Tokiko produktuekin osaturiko hamaiketakoak: Bizio. Sasoiko pintxoak. 11:00-13:00

EAJk Arartekora jo du gobernu taldeak oposizioaren eta herritarren eskubideak "urratu" dituela iritzita

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko EAJren iritziz, gobernu taldeak "behin eta berriro" urratu ditu oposizioaren zinegotziak "tokiko ordezkari lez dituzten eskubideak", oposizioaren kideen lana "izugarri" zailtzera. Herritarren parte hartzeari dagokionez ere kexu

dira, gobernu taldeak ez duelakoan bete "herritarren parte hartzearen lankidetzaren printzipio orokorra". EAJren esanetan, lau dira urraturiko akordioak, gutxienez.

Oposizioari ez zaiola "udal gaien buruzko mozioak aurkezten uzten" eta "Printzipio Aktiboaren printzi-

pio orokorra" ez dela betetzen gaineratu dute jeltzaleek. "Formalki eskaturiko informazioa ez ematea" eta "tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa" ez betetzea egotzi dizkiote gobernu taldeari, "aipamenengaitiko esku hartzeak eteteagaitik".



Durango egindako osoko bilkura bat.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko irailaren 23a
20. urtea - 906. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko txosnek "euskararen arnasmune" izango den egitarau "herrikoia" antolatu dute

DURANGO • J.D.

Durangoko Txosna Batzordeak jaien egitaraua aurkeztu du asteon. "Euskararentzat arnasmune" izango den programa "parte hartzailea eta herrikoia" antolatzen ahalegindu direla adierazi dute aurkezpenean. 2018an eta 2019an lez, txosnagunea Landako Gunearen eta Plateruenaren arteko eremuan egongo da. Zortzi txosna, sukalde bat, karpa handi bi eta eszenatoki bi egongo dira bertan. Musikari dagokionez, "Durangaldeko musikariei oholtzaratzeko aukera ematea" izan dute helburu. Horregaitik, lehenengo eta bigarren egunetako egitaraua bertako musikari eta DJ saioekin osatuta egongo da. Bigarren egunean DJ maratoni herrikoiak

girotuko du txosnagunea. Bertan parte hartu gura izanez gero, izen-ematea urriaren 3ra arte dagoela zabalik gogorarazi dute. Mozorro egunerako txosna batzordeak proposatu duen gaia *Denboraren makina* da. Azkenik, txosnagunea denentzako gune segurua izan dadin, protokolo bat martxan ipiniko dutela esan dute, eta ez dela ezelango jarrera edo eraso sexistarik, LGTBI+ foborik zein arrazistarik onartuko.

Bilgune Feministak 20 urte bete dituela eta, txosnaguneko egitarauari hasiera emango dion txupinazoa elkarte horrek botako du. Urriaren 11n izango da, 20:30ean. Txosnen egitarau osoa anboto.org atarian kontsultatu daiteke.



Durangoko txosnen aurkezpena, martitzenean.

Zea Mays, Kai Nakai, Dientes de Luna, Luhartz eta Alerta, Durangoko jaietan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko jaien egitarau osoa ezagutzeko, datorren astera arte itxaron beharko da, udalak orduan emango ditu-eta xehetasun guztiak. Dena dela, etorriko denaren aperitibo modura, jaietako ekitaldi musikal guztiak zeintzuk izango diren aurreratu dute. Zea Mays, Gansos Rosas, Alerta eta Dientes de Luna taldeen rock distortsioak Andra Mariko elizpea eta Ezkurdiko plaza beteko ditu. Kai Nakai gasteiztarrek euskara

Golden Apple Quartet, Bart Sax, mariatxiak eta elektrotxaranga ere batu dira egitaraua

regetoia egiteko ezin hizkuntza aproposagoa dela erakutsiko du Andra Mariko, eta Luhartz talde durangarrak zein Mexikotik iritsitako mariatxiak gerria dantzaraziko dute. Egitarauan nabarmentzen den beste talde bat Golden Apple Quartet laukote donostiarra da. Andra Mariko oholtzara igoko dira, denen gozamenerako. Gainerakoan, ez dira faltako Musika Eskolako Bart Sax taldea, fanfarreak eta elektrotxaranga. Musika ekitaldien xehetasunak anboto.org atarian ikusi daitezke.

Marisa Barrena, Amparo Ereñaga eta Landako Eskola, prest txupinerako



Amparo Ereñaga eta Marisa Barrena (goian) eta Landako Eskolako ikasleak (behean).

DURANGO • EKAITZ HERRERA

San Fausto jaietako txupin nagusia, urriaren 12koa, Marisa Barrenak eta Amparo Ereñagak jaurtiko dute. Biak ala biak mu-

partekatu gura dugu. Andreak elkarteagaz, Bilgune Feministagaz, Batukandragaz, eta euskararen munduko eragileekin ere bai: Euskal Herrian Euskarazegaz, Berbarogaz... Eta Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformagaz ere bai", esan du Barrenak. Amparo Ereñagak gaineratu du Sare plataformagaz ere partekatuko dutela txupina.

Barrena eta Ereñaga urte luzez ibili dira Durangoko mugimendu sozialetan lanean

gimendu sozial askotan ibilitako (eta dabiltzan) herritarrak dira. Besteak beste, Andreak elkarteko kideak dira biak. Baina Barrenak argi utzi du txupinagaz ez dutela elkarteko kide lez botako. "Txupina herriko beste eragileekin

Bestalde, Landako Eskolako ikasleak jaurtiko dute txupin txikia, urriaren 15ekoa. "Oso pozik gaude. Zortedunak gara, guri tokatu zaigulako txupina botatzea. Horrez gainera, oso pozik gaude jaiak bueltan datozelako", adierazi dute. Sei ikasle igoko dira udaletxeko balkoira, Lehen Hezkuntzako ikasturte bakoitzeko bat.

Landako Eskolan, kiroldegan eta Ezkurdiko frontoian 750 eguzki plaka ipiniko dituzte

Durangoko Udalak Landako II kiroldegan ipiniko ditu horietako plakarik gehienak: 586

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak 750 eguzki plaka ipiniko ditu hiru udal eraikinetan: Landako Eskolan, Landako II kiroldegan eta Ezkurdiko frontoian. Landako II kiroldegan ipiniko dituzte eguzki plakarik gehienak, 586. Eraikinaren teilatuan ipiniko dituzte, modu horretan kiroldegiko kontsumo energetikoaren %23 energia berriztagarritz hornitzeko. Landako Eskolan beste 132 ipiniko dituzte. Ikastetxean kontsumitzen den energiaren %40 eguzki energiagaz hornituko dute. Azkenik, Ezkurdiko frontoian ipiniko dituztenak daude. 40 modulu instalatuko dituzte, frontoian kontsumitzen den



Landako Eskola.

energiaren %31 eguzki energiagaz hornitzeko. Proiektu hauek egin ahal izateko, Durangoko Udalak 232.000 euroko laguntza ekonomikoa jaso du Energiaren

Euskal Erakundearen eskutik (EVE). Kopuru horrek aurreikusitako inbertsioaren %70 estaliko du. Lanak 2023aren hasieran egin gura dituzte.

Jaume Gubianas egile katalanaren kartelak iragarriko ditu jaiak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak sanfaustoak iragarriko dituen kartela zein izango den jakinarazi du. Kartelaren egilea Jaume Gubianas Escude da, Bartzelonako probintziako Navás herrian (Herralde Katalanak) jaiotako artista. Berea izan da lehiaketara aurkezturiko 34 kartelen artean irabazlea. Orain aste batzuk, irailaren 5etik 9ra, Durangoko Udalak jaiak iragarriko dituen kartela bozkatzeko epea zabaldu zuen. Gubianasen kartelak 114 boto jaso ditu guztira, botoen %30,1. *Elkarrekin 2* du izena.



Kartel irabazlea.

Atxondoko parke biosasungarria herritarrek erabiltzeko prest

Atxondoko sarreran egin duten parkean kalistenia parke bat, parkour eta skate pista, rokodromoa eta tirolina bat daude



Ezkerretik hasita, Carlos Sergio, Xabier Azkarate, Maria Aranguetz eta Gorka Garate

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko parke biosasungarria prest dago herritarrek erabiltzeko. Besteak beste kalistenia parke bat, parkour eta skate pista, rokodromoa eta tirolina bat dituen parkea erabilgarri dago dagoeneko. "Oso pozik gaude hainbat kirol-diziplina egin daitekeen gune berri hau zabaldua. Gobernu talde lez, atxondarren bizi-kalitatea hobetzeko lanean jarraituko dugu, lehenengo egunetik egin dugun modura", azaldu zuen Xabier Azkarate alkateak joan zen egunean egindako inaugurazio ekitaldian.

Inaugurazio ekitaldi horretan, Carlos Sergio Bizkaiko Foru Aldundiko kirol zuzendaria ere egon zen. Eta, bertan, aire zabaleko kirol jardueren parkea Atxondoko eta inguruetarako espazio potentzial bat dela azaldu zuen Carlos Sergiok. "Eta herritarrak bertan kirola egitera animatzen ditut", gaineratu zuen.

Atxondoko sarreran dagoen parkeak 400.000 euroko aurrekontua izan du eta 207.000 euro Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindu ditu.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioren langile auzo lez sorturiko Las 40, Lourdes eta Txanberri konektatu egin ziren denboragaz, etxe berrien eraikuntzaren eraginez, eta, harrezkero, hainbatek Kulotxa deitzen diote eremu horri. 2016an Kulotxa auzo elkarteak jaiak antolatu zituen bertan, lehenengo, eta urte hartako arrakasta ikusita antolatzaileek jai horregaz jarraitzea erabaki zuten. Harrezkero, Kulotxako jaiak ospatzen dituzte Elorrioren, iraileko azken zapatuan.

Aurten ere, Kulotxa auzo elkartekoek egitarau zabala antolatu dute, irailaren 25erako. Artisanu

Mugi Panderoa eta Sweet Margot taldeen kontzertuak Elorrioren, Kulotxako jaietan

Iraileko azkenengo zapatuan ospatzen dituzte Kulotxako jaiak, Elorrioren. Aurten, irailaren 24an ospatuko dituzte

azokagaz emango diote hasiera egunari, 10:00etan. 11:30ean jolasak eta eskulanak egongo dira umeentzat, eta 12:00etatik 17:00etara puzgarriak. 19:00etan Mugi Panderoa erromeria taldeak girotuko du Kulotxa, eta 20:00etan Eusko Labeldun pintxoak egongo dira.

Egunari amaiera emateko, afari kontzertua egongo da, Sweet Margot musika taldeagaz. Eta, 22:30ean, suzko zezena.

Kulotxako jai hauek Kulotxa auzo elkarteak antolatu ditu, Elorrioko Merkataria Elkartearen eta Elorrioko Udalaren babesagaz, besteak beste.



Mugi Panderoa taldeko kideak.

Abadiñon "gune euskaltzale, feminista eta ezkertiarra" sortzeko proiektua aurkeztuko dute

Zelaietako Txanporta kultur etxean aurkeztuko dute proiektua, irailaren 28an, 19:00etan

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko herritar talde batek udalerriri osoari begirako proiektu kultural berri bat aurkeztuko du, irailaren 28an, 19:00etan, Txanporta kultur etxean. Herrian "gune euskalduna, euskaltzalea, feminista eta ezkertiarra sortzea" dutela helburu aurreratu dute

egitasmoaren bultzatzaileek, eta datorren eguaztenean emango dituztela proiektuari buruzko xehetasun guztiak. Proiektuak "bidelagunak" behar dituela azpimarratu dute, eta, alde horretatik, herritarrak aurkezpena deitu dituzte, eta "bakoitzak gura eta ahal duen ekarpena" egitera.



Aurkezpena iragartzeko kartel bat, Zelaietan.

Abadiñoko EH Bilduk Ibaizabal errekan isurketa bat egon dela salatzen du

Koalizio subiranistak "isurketaren jatorria ezaguna" dela adierazi du, eta gobernu taldea kritikatu du

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ibaizabal errekan, Zelaieta eta Astola artean dagoen zubiaren parean, isurketa bat egon dela salatzen du Abadiñoko EH Bilduk. "Gaurkoan ere beste isurketa batez berba egin beharrean gaude. Isurketa hauen jatorria ezaguna da eta egoera konpontzeko egin beharrekoa ere bai.

Izan ere, udalean badaukagu idatzizko proiektu bat Arrankurri inguruko ur zikinak errekarara bideratu beharrean kolektorera eramateko", adierazi dute EH Bildukoek.

Proiektua jasota dagoen arren, "udal gobernuak obra esleitzeko prozesua oraindino ez duela hasi", kritikatu dute.



Zelaieta eta Astola arteko zubia.



DURANGO

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Ziurtagiri Ofiziala

Deutsch · English · Euskara · Français

MATRIKULA ZABALIK (on-line) →
Talde presentzialak eta erdipresentzialak

Irailaren 1etik 16ra (1.fasea)
Irailaren 16tik 29ra (2.fasea)

Zubiaurrea Kalea, 1
48200 Durango · 946 81 66 45
015054aa@hezkuntza.net
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net



Otxandioko pilotalekuan rokodromo bat egingo dute eta urtea amaitu aurretik zabaltzea da asmoa

Herriko hainbat eragile eta udala elkarlanean aritu dira. Eskalatzailen, frontoiko erabiltzaileen eta herriko askotariko elkarten ekarpenak jaso ondoren gorpuztu dute egitasmoa, eta 2022a amaitu aurretik erabilgarri egotea da helburua

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko pilotalekuan rokodromo bat egingo dute eta urtea amaitu aurretik erabilgarri egotea da asmoa. Kantxatik kanpora egingo dute, gaur egun harmailak dauden inguruan. 10 bat metroko zabalera izango du, eta 95 metroko eskalada gune erabilgarria. Printzipioz, rokodromoa denentzat egongo da erabilgarri, frontoia bera egoten den moduan.

Mirugain mendi taldetik irten zen ideia, herrian mendirako eta eskaladarako dagoen afizioa kontuan hartuta. Gerora, herritarrek, hainbat eragile eta udala elkarlanean aritu dira proiektua aurrera eramateko.

Prozesu zabala

Prozesu parte hartzailearen bitartez gorpuztu dute egitasmoa. Eskalatzailen, frontoiko erabiltzaileen (Illuntxo pilota elkarte, Vulcano futbol taldea, guraso elkarte...) ekarpenak jaso dituzte eta herriko kirol elkarten bilgune den Kirol Kontseiluan ere aurkeztu dute proiektua. Azkenik, astelehenean batzar zabal bat egin zuten. Bertan, rokodromoa diseinatu duen Adolfo Medinabeitia eskalatzailak eman zituen azal-



Astelehenean egindako batzar irekiko irudia.

penak. Eskalatzailak joan ziren batez ere, eta euren iritzia eman zuten.

Erantzun "handia"

Asteleheneko batzarra lehenengo fase honen amaiera izan zen. Horrela, prest dute rokodromoaren

diseinua. "Prozesuak erantzun handia izan du. Azkenean, jendea gustura geratu da kokapenagaz, formatuagaz eta diseinuagaz, eta poztekoa da hori", azaldu du Mirugain mendi taldeko eta egitasmoaren talde eragileko kidea den Arkaitz Carrascok.

Etorkezunean orain arte lez funtzionatu gura dute rokodromoaren gaineko erabakiak hartzerakoan. "Oso gustura gaude formatu honetan, denon artean berba eginez eta akordioetara helduz. Funtzionatzeko modu hau osasuntsua dela uste dugu", azaldu du Carrascok.

Korralla sormen guneak Clown ikastaro trinkoa antolatu du Izurtzan

IZURTZA • J.D.

Ganso&Cia antzerki konpainiak Izurtzan kokatu du bere egoitza berria. Korral Sormen Gunea izenagaz, sorkuntzarako ez ezik formakuntza ikastaroak emateko ere baliatuko dute. Lehenengo ekintza prest dute: Marcelo Katz argentinarrak Clown ikastaro trinkoa emango du, urriaren 24tik 27ra. Egunean lau orduko ikastaroa da, 10:00etatik 14:00etara. Ikastaroaren prezioa 140 euro da eta info@ganso.info helbide elektronikoaren bitartez egin daitezke erreserbak.

Marcelo Katzek urte askotako esperientzia du aktore eta zuzendari lanetan, eta hainbat mintegi eman du Hego Ameriketako zein Espainiako estatuan.

MALLABIA • J.D.

Lan handia eskatu du, baina gertu dago "ilusio handiz" prestatu duten egitaraua. "Herritar guztiei zabalik egongo zen zeozer antolatu gura genuen. Horretan ahalegin du gara. Mallabitar denentzako ospakizuna izango da", adierazi du Juan Carlos Pérezek.

Egitarauko ekitaldirik bereziena bihar iluntzekoa da. 21:00etan, 1997ko lehenengo taldeko jokalaria eta klubaren historiako presidentek omenduko dituzte eskolako frontoian egingo duten ekitaldian. Gutxi batzuk ezingo dira joan, kanpoan bizi direlako, baina gehienak, hamabi bat, hantxe egongo dira. Euren artean, klubeko lehenengo presidentea izandako Oscar Álvarez. Gaur egun Castro-Urdialesen bizi da, baina ez du ospakizunean hutsik egin gura izan.

Ekimen horren aurretik, arratsaldean zehar, umeentzako jolasak eta DJ Txurruren musika emanaldia egingo dira.

"Mallabitar denentzako ospakizuna izango da"

Mallabia Kirol Elkarteak 25. urteurrena ospatuko du asteburuan. Juan Carlos Pérez parte den lantaldea buru-belarri ibili da prestakuntza lanetan



Juan Carlos Pérez, urteurrenerako prestatu duten kartelagaz.

Alos Quartet laukoteak kontzertua joko du, zapatu honetan, Mekoletan

OTXANDIO • J.D.

Zapatu honetan, musika kontzertu batez gozateko aukera egongo da Otxandioko Mekoleta auzoan. Alos Quartet laukoteak zuzeneko emango du, 18:30ean. Arkotxe Kultur Elkarteak eta Otxandioko Udalak elkarlanean antolatutako ekimena da.

20 urte baino gehiagoko ibilbidean, musikari askogaz grabatu eta kolaboratu dute

Alos Quartet lau musikarik osatzen dute: Xabier Zeberio, Francisco Herrero eta Lorena Núñez biolinistek eta Ivan Alzate baxu-jotzaileak. Jatorri klasikoagaz, folka eta musika garaikidea lantzen dute. 1999etik hona hainbat disko kaleratu du, eta musikari askogaz kolaboratu: Niko Etxart, Kepa Junkera, Carlos Núñez...

Elortegi Anayak-en kontzertua eta Deabru Beltzak-en ikuskizuna, gaur, Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Orain hilabete batzuk, Mañariko Udalak, herritarrekin batera, aurrekontuetako diru bat zertan gastatu erabaki zuen prozesu parte hartzaile baten bitartez. Kultur ekimenak areagotzea izan zen eskaeratariko bat, eta gaurko ekimenek eskaera horri erantzuten diote. 20:00etan, Elortegi Anayak rock and roll taldearen kontzertua

'Su danborrak' ikuskizunak zuzeneko musika, piroteknia eta efektu bereziak uztartzen ditu

hasiko da plazan. Bakioko taldeak hiru disko kaleratu ditu orain arte.

Gero, 21:00etan, Deabru Beltzak taldeak *Su danborrak* izeneko kale ikuskizuna egingo du, eta, bertan, Aker-en deabrukeriek plaza hartuko dute, zuzeneko musika, piroteknia eta efektu bereziak uztartuta.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**

Iurretako alkatearen aurka udal idazkari ohiak ipinitako eginbideak behin betiko artxibatu dituzte

2020an Iurretako Udalaren administrazio prozeduretan "irregulartasunak" aurkitu zituela adierazi zuen idazkari ohiak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Udal kudeaketan irregulartasunak egon zirelakoan Iurretako alkate Iñaki Totorikagunearen eta udaleko kontu-hartzailearen aurka udal idazkari ohiak ipinitako eginbideak behin betiko artxibatu dira, "delitua izan zitekeen egitaterik ez zegoela egiaztatzen

zuen autoa berretsi baita". Halaxe jakinarazi dute Iurretako Udaltetik. 2020ko azaroan, idazkari ohiak hainbat salaketa ipini zuen ustezko jazarpen eta prebarikazio kasuengaitik, eta Iurretako Udalaren administrazio prozeduretan "irregulartasunak" aurkitu zituela adierazi zuen. Auzia behin betiko

artxibatuta, Iñaki Totorikaguena alkateak ohar batean nabarmendu duenez "frogatu da ez zegoela inolako oinarriker aurkezturiko salaketetan, eta beste interes batzuen ondorio zirela. Asko eskertzen dut denbora honetan jasoriko babeseta eta Iurretako bizilagunek helarazi didaten konfiantza". Gogoratu dute Durangoko epaitegiak artxibatu egin zituela alkatearen eta udal kontu-hartzailearen aurka ipinitako salaketak, 2021eko azaroan emandako ebazpen batean. Baina idazkari ohiak errekurritu zuen irizpen hori, Bizkaiko Probintzia Auzitegian. Irailaren 2an jakinarazi zuen auzitegi horrek errekurtsioa ezesten zuen autoa, uztailearen 26koa, eta errekurtsioa ezetsi eta aurretiazko eginbideei amaiera eman, behin betiko artxibatu zituen eginbideak.



Iurretako alkate Iñaki Totorikaguena "denbora honetan jasotako babeseta" eskertu du ohar batean.

Iurretako kontsultategian administrazio eremuak berriro dituzte

Osakidetza ohiko mostradoreak kendu eta mahaiko arreta guneak ipini ditu, arreta "hobetzeko"



Iurretako osasun zentroak inguruko 4.355 pertsonari ematen die arreta.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Osakidetza Iurretako osasun zentroko administrazio eremuak berriro ditu, "bizilagunei ematen zaaien arreta hobetzeko". Iurretakoagaz batera, Basauriko San Migelgo zentroko administrazio eremua ere berriro dute, guztira 212.433 euroko inbertsioa eginda. Ohiko mostradoreen ordez mahaiko arreta guneak ipini dituzte, "erabiltzaileari jesartzeko eta arreta gizatiarragoa eta pertsonalizatuagoa jasotzeko aukera eman", ohar batean azaldu dutenez. "Arreta eredu hurbilagoa, integralagoa eta pertsonalizatuagoa garatzea" izan dute helburu, nabarmendu dutenez.

Iurretako kontsultategiak — Durangoko Lehen Mailako Arretako Unitateari dagokio— 347 metro koadro erabilgarri ditu eta inguruko 4.355 pertsonari ematen die zerbitzua. Erizaintza, Pediatria eta Familia Medikuntzako zerbitzuak ditu, eta urtean 41.487 kontsulta artatzen ditu, osakidetza arduradunek azaldu dutenez.

Andres Espinosaren omenezko mendi ibilaldia egingo dute, urriaren 2an, Zornotzan

Aurten derrigorrezkoa da izena ematea parte hartzeko, irailaren 29a baino lehenago, Zelaieta zentroan



Andres Espinosari eskainitako panela, Zornotzako Jauregibarra parkean.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak mendi ibilaldia antolatu du urriaren 2rako, Andres Espinosa mendizale zornotzarra gogora ekartzeko. Ibilbide bi antolatu ditu: nagusia eta laburra. Ibilbide nagusia 22,6 kilometrokoa da eta ibiltariak 08:00etan irtengo dute, Jauregibarra parkean. Ibilbide laburra 6 kilometrokoa da, familia giroan eta etxeko txikiekin egiteko aproposa. 10:00etan irtengo dute, Jauregibarra parkean. Udalak azpimarratu duenez, aurten derrigorrezkoa izango da irteeran aurretiaz inskribatzea. Zelaieta zentroan eman behar da izena.

Andres Espinosa Zornotzan jaio zen, 1903an. Euskal Herrikan kanpora ezagun egin zen lehenengo mendizalea izan zen. Izan ere, bera izan zen lehenengo Mont Blanc (4.807 metro) eta Kilimanjaro (5.895 metro) mendiak bakarrik igotzen. 1929an eta 1930ean igo zituen gailurrok, hurrenez hurren. Horrez gain, lehenengo mendizalea izan zen Matterhorn mendia (4.478 metro) sokarik barik igotzen. 1929an igo zuen. Bere omenez egin ohi den ibilbideak PR BI-74 izena du. Homologatuta dago eta hiru interpretazio mahai ditu.

Bazkaria, karta txapelketak eta omenaldiak Garaiko nagusien aste kulturalean

Aste kulturala antolatzen duten XIV. aldia da aurtengoa

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko San Migel Nagusien Elkarteak aste kulturala egingo du hilaren amaieran, erakundeari izena ematen dion santuaren omenezko egunetan zehar. Nagusien elkarteak aste kulturala egiten duen XIV. aldia izango da eta aurtengo edizioan ere ez dira faltako bazkaria, karta jokoa, adinez nagusienak diren bazkideei egindako omenaldia eta giro jatorra. Irailaren 27an ekingo diote aste kulturalari, briska txapelketagaz, eta karta jokoei segida izango dute hurrengo egunetan ere: irailaren 28an tute txapelketa jokatuko da, eta irailaren 29an mus txapelketa. Karta txapelketa

guztiak 17:30ean hasiko dira. Mus txapelketaren ondoren, merendala egingo dute.

Bazkaria Otea Loran

Aste kulturaleko ekitaldirik handiena bazkaria izango da. Urriaren 1ean egingo dute, Otea Loran elkarteak, 14:30ean. Bertan, karta txapelketetako sari banaketa egingo dute, eta, zelan ez, urteroko omenaldia egingo diete adinez nagusienak diren elkarteak. Aste kulturaleko ekitaldi guztiak San Migel Nagusien Elkarteak antolatu ditu, Garaiko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz.

Martxan dira Zornotzako jabekuntza programak

ZORNOTZA • A. M.

Dagoeneko zabalik dago datozen hileetako kirol, gizarte eta kultura arloetako ekimenetan parte harzeko izen-ematea. "Jabekuntza programak guztientzako eskola feminista izan gura du: zabaldu, hurbila, esku-ragarria eta anitza izan gura du", azaldu du Ainhoa Salterain Gizarte ekintza eta berdintasuneko zinegotziak. Ahalduz zuzenki buruzko ikastaroetan zortzi tailer emango dituzte; besteak beste, Mundu bat fundazioak, Ziortza Pereirak, Inma Merino de Castrok eta Belen Del Riok emango dituzte. Bestalde, feminismoari eta gazteriar buruzko tailerrak ere egongo dira, 16tik 20 urtera bitarteko gazteentzat. Aholkularitza sexologikoa eta jarduera bereziak ere eskainiko dituzte Zelaieta Zentroan, ikasturte osoan zehar. Informazio gehiagorako, interesa duenak udalaren webgunera jo dezake; 644 770 031 telefonora ere jo dezake, whatsapp bidez.

Berrizko merkataritza sustatzeko asmoagaz 'Bizi Berriz' jaia antolatu dute zaturako

Berrizko Merkataritza Elkarteak egun osoko egitaraua prestatu du zaturako, Berrizko Udalaren laguntzaga; euria iragarri dutela eta, ekintza batzuen kokapena aldatu egin dutela ohartarazi dute antolatzaileek

BERRIZ • A. M.

Udako oporraldia atzean utzi eta ikasturte berriari ongi etorria emateko asmoz, Berrizko Merkataritza Elkarteak egun osoko egitaraua prestatu du Berrizko Udalaren laguntzaga. Aurretik ere antolatu dituzte halakoak; hala ere, oraingo honetan leloa estreinatuko dute: Bizi Berriz! 11:30-13:30 eta 16:30-20:30 bitartean tirolina eta kart zirkuitua ipiniko dituzte eskolako patioan; musika ere egongo da, jaia girotzeko; antolatzaileek adierazi dute tirolina frontoitik plazara bitartekoa izango dela. Horrez gainera, 17:30ean kalejira hasiko da, Kanto plazatik Olakueta plazara. Antolatzaileen esanetan, zaturako euria dago iragarri, eta, euria eginez gero, kalejira Olakueta plazan hasi eta amaituko dela iragarri dute. Hala ere, aurreko urteetan lez, giro atsegina nagusitzea itxaroten dutela azaldu dute BMEko kideek ohar baten bitartez.

10.000 bonu

Bestalde, irailaren 12an 'Harraskatu eta irabazi!' izeneko kanpaina ipini zuten martxan BMEk eta Berrizko Udalak. Egitasmora baturiko komertzioe-

tan erosketak egin dituzten bezeroen artean, 5, 10 eta 20 euroko deskontu bonuko txartelak banatuko dituzte, bat erosketa bakoitzeko. Saririk ez duten txartelen artean, 100 euroko

deskontu txartela zozkatuko da gainera. Kanpaina hau urriaren 11n amaituko da (edo lehena-go, bonuak amaituz gero), eta aste bete geroago egingo dute zozketa.



Irailaren 12an hasi zuten Harraskatu eta irabazi! kanpaina.

Trantsizio ekologikoa eta digitala lantzeko bide-orriak enpresen esku ipini dituzte

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Mankomunitateak trantsizio ekologikoan eta digitalean laguntzeko prestakuntza saioak egingo ditu Durangaldeko enpresentzat; enpresa txiki eta ertainentzat, batez ere. Behar-gintzak emango ditu saioak. Trantsizio ekologikoa eta digitala lantzeko, enpresa bakoitzaren diagnostikoa eta ibilbide-orri individualizatua egingo dute. Enpresek pymes@dma.eus helbidean eman dezakete izena.

'Sexualitatea, plazera eta ahalduntzea' tailerra Zaldibarren

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Udaleko Berdintasun Sailak ikastaro berri bat antolatu du bertako emakumeentzat: sexualitatea, plazera eta ahalduntzea. Udalak Mundo Ivaginario elkarteagaz batera antolatu du ikastaroa. Irailaren 29an izango da tailerra, liburutegi zaharrean. Adin txikiko zaintzarako zerbitzua egongo da; izena emateko, berdintasuna@zaldibar.eus helbidera idatzi behar da

Berrizko adinekoen egoitzarako lanak berriro lizitatuko dituzte

Adinekoen egoitza berriko obrak lizitaziora ateratu dituzte; lanek 495.000 euro inguruko aurrekontua dute



Berrizko adinekoen egoitza.

BERRIZ • A. M.

Berrizko Udalak berriro ateratu dituzte Adinekoen Egoitza berriko obrak. Udal egoitza zabaltzeaz gainera, udalak eguneko arreta zerbitzua eta taberna zerbitzua eskaintzeko asmoa du, besteak beste.

Obra hauekin, Jubilatuen Etxea izan den lokala eta bilera gela lez erabili den lokal erantsia guztiz berrituko dituzte. Aurretik, lan horiek 351.105,08 euroan lizitatu ziren; "lanak egiteko ezintasuna" adierazi ostean, baina, hasita zeuden lanak gelditu egin zituzten. Orain, lan horietarako diru partida handitu dute, "prezioen igoera kontuan hartuta", azaldu du Berrizko Udalak.



#RESERVA LA RIOJA
www.lariojaturismo.com

La Rioja

Erdella mendi taldeak Elorrioko Bira antolatu du domekarako

ELORRIO • JOSEBA DERTEANO

Erdella mendizale taldeak Elorrioko Bira antolatu du domeka honetarako. Aurten ere ibilbide bi egongo dira aukeran parte hartzaileentzat: 32 kilometroko luze-ara duen luzea eta 15 kilometroko laburragoa.

Bira handia 7:30ean hasiko da, Herriko plazatik. Ibilbidean zehar Memaia (675 metro), Atxaurrutxagane (959 m), Udalatx

(1.117 m), Kanpanzar, Kañueta, Intxorta (717 m), Erdella (682 m) eta Berriozabaleta zeharkatu ondoren, Elorriora bueltatu eta hasitako leku berean amaituko dute Bira.

Bira txikiak ere herriko plazan izango du irteera puntua; kasu honetan, 9:00etan, eta Aldape, Erdella eta Berriozabaletatik igaroko dira, besteak beste, Elorriora bueltatu aurretik.



Elorrioko Birako iazko argazki bat.

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Badatoz sanfaustoak!

Urte bi jai barik egon ostean, badatoz herriko jaiak. Patxikotxu eta Pantxike berriro herriko kaleak girotzen izango ditugu.

Artikulu honetan ez dut jaien programazioari buruz hitz egingo, egitaraua sare sozial, liburuxka eta karteletan eskuragarri izango baitugu hurrengo egunetan. Gaurkoan garrantzitsuagoa den gai bat jorratu dut; jai giroan eta gehien bat gaez gertatzen diren erasoei buruz arituko naiz. Eta oraingoan ez dut berriz biktima jomugan jarri eta zer egin beharko lukeen edo gurekin

Jai giroan eta gehien bat gaez gertatzen diren erasoei buruz arituko naiz

zehaztuko. Bada garaia erasotzailea jomugan jartzekoa.

Horregatik, San Fausto jaian pertsona bat bortxatu, ziztatu, jazarri edota zerbaitetara behartu nahi baduzu eraso eginda, edo horretarako gogo puntu bat izanez gero, gera zaitetz etxean!

Pertsona bati bere itxura edo jantzita daraman arropatik eraso egiteko gogo sartzen bazaizu, gera zaitetz etxean!

Zurea ez den orientazio sexuala duen pertsona bati min eman nahi badiozu, gera zaitetz etxean!

Pertsona bat hitz eta esaldi lerdetsuak esanez jazartzeko nahia ezin baduzu ekidin, gera zaitetz etxean!

Jai osasuntsuak nahi ditugu, errespetuz ospaturikoak.

Eraso matxista, homofobo, transfobo eta sexistarik ez da onartuko. San Faustoetan ondo pasa eta errespetuz jokatu.

Durangaldea asteen

Elorrion Zumelegi erreka garbitzeko ekimena antolatu dute zapaturako

ELORRIO | Anbotopekok, Elorrioko Ekologista Taldeak eta Baso Biziak plataformak Zumelegi erreka garbitzeko ekimena antolatu du zapaturako. Elorrioko Udalak bertan parte hartzeko dei egin die herritarrei. Parte hartzeko ezinbestekoa izango da izena ematea. Aurrez egin beharko da, Anbotopekon edo Iturrin

Betsaide taldeak euskal dantzen eta plazako dantzen ikastaroa emango du

ELORRIO | Betsaide dantza taldeak dantza ikastaroak antolatu ditu 16 urtetik gorako herritarrentzat. Oraingoan talde bi daude osatuta, eta egunetan batuko dira, bata 18:00etan eta bestea 19:30ean. Betsaidekoek hirugarren talde bat ere sortu gura dute; hau hasiberrientzat izango litzateke. Izen-ematea irailaren 28a baino lehenago egin beharko da, PlazakoDantzak@gmail.com -era idatzita edo 635 73 82 77 telefonora deituta.

Astelehenetik aurrera Durangoko TAO zerbitzu berria martxan egongo da

DURANGO | Datorren astelehenetik aurrera, Durangoko TAO zerbitzu berria martxan egongo da. Hori horrela, irailaren 26tik aurrera TAO zerbitzuak lau gune izango ditu, errotazio altuko (TAO berdea) gune gehiago ere egongo da, eta baita egoiliarrentzako gune gehiago ere.

Iritzia

Gerediaga elkarteak eta Durango 1936 elkarteak antolaturiko eta Durangoko Udalak finantzaturiko "1936ko irailaren 25eko gertakarien ondorioz hildako lagun guztien oroimena eta aitortza" ekitaldiari dagokionez, hauxe adierazi nahi dut:

- Bertan aipaturiko 22 presoetatik 21 Durangoko erreketek mugimenduarrekin zuten harremanagatik atxilotu zituztela; pertsona horiek Zabalandin egiten ari ziren tiro-praktikekin eta gerrilla-ariketekin, eta haien azpiegiturarekin erlazionatu eta identifikatu zituztela, estatu faxistaren kolpearekin bat egiteko.

- Tokiko faxismoak urte askoan "kausaren martiri" gisa hartu izan zituela 21 pertsona horiek, eta, euren omenez, "Martirien etorbidea" izena jarri ziotela Durangon bere garaian garrantzitsuena zen etorbideari. Durangoko hilerrian kapera ere egokitu zitzaion.

- Nire desadostasuna adierazteko, Durango 1936 elkartearekin harremanetan jarri eta hauxe erantzun zidatela: "Durango 1936 elkarteak ez du faxistarik omendu eta ez du omenduko. Irailaren 25ean, hain zuzen, ez da faxisten aldeko omenaldirik egingo, Durango 1936 elkarteak antolatuta edo lagunduta ez behintzat". Ezin dut erantzun hori ulertu deialdia hain esplizitua izanda: "1936ko irailaren 25eko gertakarien ondorioz hildako lagun guztien oroimena eta aitortza".

-Ekitaldi honen eta hilaren 21eko aurrekoaren bidez (mugimendu memorialistekin kontrastatuta) ulertzen dut mezu errebisionista bat helarazten dela, zeinetan faxistak, erreketek eta faxismoa bera zuzitzen diren, eztabaida memorialista daramaten edukiak honako termino hauetara transmititzean: "Bi aldeetan jende ona eta txarra zegoen, bi aldeetan astakeriak egin ziren", eztabaida memorialista oso identifikatuta dagoenean: "egia, justizia, errepazioa eta ez erreplikatzeko bermeak faxismoak iraindutako pertsonentzat".

- Aurrekari hauekin gauza bera bururatuko litzazuke Musoliniren kasuan, partisano baten tiroz hil zena eta aurretiko epaiketarik gabe? Edo frantses estatuan, non Erresistentziak eta Makiak epaiketarik gabe exekutatatu zituzten milaka kolaborazionista nazi, egingo litzazkieke omenaldi bateratuak Musolini-partisanoei-kolaborazionistek-erresistentziakoei-makiei? Alemanian delitua da. Aurrekari horrekin, beldurra ematen dit pentsatzeak Durangon, Bildu-Podemos izanik agintari udal gubernuan, egunen batean posible izango litzatekeela elkarrekin "gogoratzea eta aitortzea" nire osaba Nicolás Barreña eta Durangoko poliziaren arduradun errepresioegilea, aurretiko epaiketarik gabe hil zutena 1934an.

Martin Barreña Ocejia

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak

1# **MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA**
Joseba Sanrionandia / Ares (Pamiela)

2# **BAR GLORIA**
Nerea Ibarzabal (Susana)

3# **M, AMA, EME, UME**
Erika Lagoma / Estitxu Fernandez (Elkar)

4# **AZKEN ETXEA**
Arantxa Urretabizkaia (Pamiela)

5# **MIÑAN**
Ametz Arzallus & Ibrahima Balde (Susana)

ate irekien jardunaldiak

akuarela tailerra

astean 3 ordu

AKUARELA ERAKUSKETA + INAUGURAZIOA

URRIAK 1
10:00etatik
14:00etara

16:00-18:00
edo
17:00-20:00

ASTEARTEA, ASTEZKENA edo OSTEGUNA

Info +:
639 052 193

TAILER-LEKU
Zubibide 13
Traña-Matxista

izen ematea eta info +:
639 052 193

TAILER-LEKU
Zubibide 13
Traña-Matxista

parareda



*Iurretako Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!*

Iurretako jaiak 2022

Irailak 21, eguaztena

18:45 Pilota partiduak, Cafés Baqué final-laurdenak

Irailak 22, eguena

Argazki Rallya on line.

GAIA: Iurretako jaiak

Lanak aurkezteko epea: urriaren 7ra arte

19:00 Bingo tonbola eta txokolatea, Askondon. Jarraian, musika

Irailak 23, barikua

17:00 Nesken lagun arteko pala partiduak. Ondoren, **Bizkaiko klubaren arteko Esku Pilota Txapelketa****21:30 Puro Relajo**, Askondon

Irailak 24, zapatua

12:30 Antxo eta Pantxa pailazoan 'Antzarrekin dantzan' ikuskizuna, Askondon**14:30 Marmitako txapelketa**, Kaskoan**16:30 Sputnik goitibeherak****18:00 Ganako Txaranga****20:00 Ume eta gazteentzako musika dantzagarria** - DJ, Askondon**22:00 Helduentzako musika dantzagarria** - DJ- Dantzatze prest, Askondon**22:00 - 1:00 Beldur barik Gunea** plazan 'Ez Ezetz da. Eraso sexistarik Ez!'**22:30 Kontzertuak plazan: Lamiak, Etxekalte.** Ondoren, **Lehian erromeria**

IRAILAK 25, DOMEKA

8:00 Mendi martxa**12:00 Grafiti erakusketa eta tailerra** (Maspe kalean)**13:00 Herri kirolak: Bizkaiko Zaku-eramate Txapelketa****17:30 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Kuikui'** ikuskizuna. (Euria eginez gero, Kepa Arroitauregi frontoian)

Irailak 27, martitzena

19:00 Antzerkia 'Legea gu gara'. Plazan. Euria eginez gero, Askondoko karpan

Irailak 28, eguaztena

12:00 Jaien hasiera Montoitik**12:05 Presoen aldeko kontzentrazioa eta brindisa.** Ondoren, **kalejira dultzainero eta buruhandiekin****14:00 Jubilatuen bazkaria**, Askondoko karpan**14:30 Gazte bazkaria** plazan**18:00 Ohiturazko Doniel-Atxa jasotzea.** Jarraian, **dantzarien azken entsegua.** Ondoren, **Txalainak****22:00 Erromeria Altxa porru**

Irailak 29, eguena

11:00 Dantzari eta agintarien kalejira plazara**12:30 Dantza saioa.** Ondoren, **igel txapelketa****17:00 Briska txapelketa** plazan**18:30 Dantza saioa.** Jarraian, kanta eta dantza **Eingo** taldeagaz

Iraila 30, barikua

16:30 - 19:30 Umeentzako zurezko jolasak. Euria eginez gero, Kepa Arroitauregi frontoian**17:00 Ginkana**, Etxegon**Tortilla txapelketa.** 20:00etan aurkezpena**20:00 Erromeria Lotxo taldearen eskutik**, Askondoko karpan**22:00 Bertso saioa: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Nerea Elustondo.** Gai jartzailea: **Ainhoa Urien****23:45 Baske Street Boys, EDAN azken ardu dantza eta Gora Etorri**

Urriak 1, zapatua (Mozorro eguna: marrazki bizidunak)

12:30 Poteoa herrian zehar Kittu taldeagaz**14:30 Herri bazkaria.** Ondoren, **bingoa**, Askondoko karpan**18:00 Elektrotxaranga** plazatik kaskora, eta buelta**21:30-22:30 Erromeria Luhartz taldeagaz****22:00 - 00:00 Beldur Barik Gunea** plazan. 'Ez Ezetz da. Eraso sexistarik Ez!'**23:30 Erromeria Luhartz taldeagaz**

Urriak 2, domeka

10:00-14:00 XXII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, Olaburun**11:00 Dantzari eta agintarien kalejira plazara****12:30 Dantza saioa.** Ondoren, mutil-dantza, soinulariak 'Baztandarrak'**8:00 Dantza saioa.** Talde gonbidatuak: Zangotzako Rokamador dantza taldea, Otsagabiako dantzak. Iurretako dantzariak: gorulari dantza, Dantzari Dantza eta erregelakOndoren, **jaietako errifan zozketa****20:30 Erromeria eta herri afaria 'Miren eta Roberto Etxebarriagaz'****22:00 Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz**


**IURRETA
KOPISTEGIA**

Bidebarrieta 1 Bajo
48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 10 70
info@iurretakopi.com
www.iurretakopi.com

**INSTALAZIOAK
ETA BERRIKUNTZAK**



ALDA S.L.

- Iturgintza
- Berogailua
- Gas
- Igeltserotza
- Gremioen koordinazioa

C/ Uralde, 8 bajo
482015 IURRETA
Tel.: 94 681 20 86
cons.alda.sl@gmail.com

IURRETA

**HARATEGIA
FRUTA - DENDA**

Bixente Kapanaga, 4 - IURRETA
Tel.: 687 568 200



**KORTA
TABERNA URIEN**

Egunero: gosariak, pintxoak, zizka-mizkak, eteko pastelak, kafeak, irabiatuak, ... Asteburuetan: bazkariak, kopak, mojitoak, irabiatuak, eskoziarrak, balentziarrak eta giro aparta.
Martitzenetan ibita.



Bixente Kapanaga 10, Iurreta - Tel.: 944 555 969



Smurfit Kappa
Central forestal

+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

Smurfit Kappa
Nervión

Mallabiena



**M.Z.O. ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUA
ERAIKUNTZA, S.L.**

Mallabiena industrialdea, 6
48215 IURRETA
Tel.: 946 818 862 / 946 816 051
mallabiena@mallabiena.com
www.mallabiena.com

JAIK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte biko etenaren ondoren, heldu dira sanmigelak. Irailaren 28an Montoitik jaurtiko dituzten txapligoek jai giroz bustiko dituzte Iurretako kale eta bazterrak. Hala ere, ordurako, jaien bueltan sorturiko hainbat ekitaldi eginda izango dituzte iurretarrek.

Gaur, esaterako, 21:30ean, Puro Relajoren kontzertua egongo da, Askondon, eta bihar Lamiak, Etxekalte eta Lehian taldearen erromeria egongo dira. Eguerdian marmitako txapelketa egongo da, eta 16:30ean Sputnik goitibeherak.

Domekan, 8:00etan, mendi mar-txa egongo da. 12:00etan grafiti erakusketa, 13:00etan herri kirolak, eta 17:30ean Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Kuikui' ikuskizuna.

Umeentzako ikuskizunez gainera, adin guztietarako ekintzak ere antolatu dituzte Iurretako Jai Batzordeko kideek. Ez dira faltako gaztetxoentzako jolasak, helduentzako ekintzak eta gastronomia txapelketak. Urtero lez, marmitako txapelketa eta tortilla txapelketa ere egongo dira sanmigeletan. Baita gazte bazkaria, herri afaria eta jubilatuen bazkaria ere.

Musikari dagokionez, eskualdeko hainbat talde igoko da Iurretako plazako oholtzara. Irailaren 30ean, esaterako, Baske Street Boys, Edan eta Gora Etorri taldeek kontzertuak emango dituzte. Eta urriaren 1ean Luhartz taldeak girotuko du Iurretako plaza.

Mutil-dantzak

Jaietako nobedade bat urriaren 2ko ekitaldi bat izango da, Erro-

Musika kontzertuak, gastronomia txapelketak eta dantzarien saioak Iurretako sanmigeletan

Nobedade nagusienetariko bat urriaren 2an egingo diren mutil-dantzak izango dira; edozeinek dantza egin dezake



2019ko jaietako familia argazkia.

sario egunez. 12:30ean, herriko plazan, Patxi Larralde musikariak mutil-dantzak joko ditu eta jai batzordeak herritar guztiak gonbidatu ditu bertan dantza

egitera, ekitaldi zabala izango da eta. Jai batzordetik jakinarazi dutenez, Patxi Larralde joko dituen abestiak mutil dantzak eta jauziak izango dira.

Mutil-dantzen ekitaldiaz gainera, dantzarien ohiko saioak ere ez dira faltako aurtengo San Migel jaietan. Irailaren 28an, Doniel Atxa jaso eta gero, dantzariak az-

ken entsegua egingo dute, 18:00 inguruan. Eta irailaren 29an eta urriaren 2an, dantzari eta agintarien kalejirak eta dantza saioak egingo dituzte.



**GERLARI
KIROL ZENTROA**
JORGE HURTADO Zuzendaria
622 753 458
jorgehurtadonieves@gmail.com
Dantzari kalea, 6 behe
48215 Iurreta (Bizkaia)

IBAI-ONDO
Goizeko 06.00etatik
aurrera gosariak eta pintxoak
KAFETEGIA



Bixente Kapanaga, 11 • 48215 IURRETA
94 620 21 57



ARRIBIDE
GASOLINDEGIA

estacionservicio@arribide.com
arribide.com
946 818 381
POL. IND. ARRIANDI, P-1
48215 IURRETA-BIZKAIA

Ondo pasa San Migeletan!



BAÑOS IURRETA
Erakusketa eta komuneko osagarrien salmenta

ITURGINTZA BEROGAILUA GASA

Tel-Faxa: 946 202 433
NICO: 629 233 318
Email: b.iurreta@yahoo.es
Maspe kalea, 4 - 48215 Iurreta



Alimentación Amaya

Frutak, barazkiak eta txarkuteriako produktuak prezio onean

URALDE, 2
TEL: 631 267 129



AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxa: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com



ASIMAIR
COMPRESORES

SALMENTA ETA ASISTENTZIA
TEKNIKO ZERBITZUA

Ertzilla ind., pab. 7, 8 eta 16.
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 202 415
asimair@asimair.com



Goian zutunik, Koldo Zarate, Mikel Nuñez, David Mínguez, Aritz Maldonado, Unai Badiola eta Erlantz Zaldunbide. Behean, Endika Blanco eta Xabier Zabala.

“Askatasuna, laguntasuna eta alaitasuna ospatzeko zein aldarrikatzeko kontzertua izango da”

11 urteko etenaren ondoren, Edan erromeria taldea kontzertu bakar bat emateko igoko da berriro ere Iurretako plazako oholtzara. Kortatuk Iruñean Azken guda dantza egin zuen lez, Edanek Azken ardu dantza egingo du irailaren 30ean. Ez dira sorpresak, performanceak, bihurrikeriak eta ardo kopak faltako

Gauragi
Dantzari. 4 - behea
IURRETA

Tel.: 944 356 674
Gosariak, pintxoak, molleteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

HEKI
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com

f Heki Herri Kirol Kluba

Umeentzako erakustaldiak eta antolaketak

ELECTRODOMÉSTICOS

IZARBE

Lámparas • Artículos de regalo • Muebles de cocina y Hogar

TIEN 21
Especialistas en Electrodomésticos

C/ Bixente Kapanaga, 3
48215 IURRETA / Bizkaia

Tel.: 94 681 22 80
Fax: 94 621 63 36
izarbek@izarbek.com

**DESGUACES
PILASTRA**

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketa
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

Administrazioa, bajak eta faxa: 946 218 079
Osagarrien salmenta: 946 201 787
e-mail: desguacespilastra@gmail.com
Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)

Dantzari Auzunea, 8
48215 Iurreta
Tel.: 94 681 14 79
628 233 584
www.garajesanmiguel.es
garajesanmiguel@gmail.com

Garage SAN MIGUEL
plus taller profesional

Kutxa automatikoen mantenua
Mekanika orokorrean
Zerbitzu bizkorra
Mantenua
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Diagnosia
IATaren aurrekoa
Aire egokitua

**Garage
SAN MIGUEL de Iurreta, s.l.u.**

La Bodeguilla
PINTXOAK ETAK
SNACKS

Pintxoak eta
aperitiboak

Dantzari auzunea, 6 - Iurreta
Tel.: 944 669 357

MUSIKA • EKAITZ HERRERA

2006ko ekainean hasi zen dena, parranda giroan. San Juan gau hartan Iurretako Abadetxean egon zirenek behintzat ondo gogoan dute begiekin ikusi eta belarriekin entzunikoak. Iurretako eta Durangoko lagun talde bat Abadetxeko eszenatoki gainean, zer eta Egan erromeria taldearen bertsioak egiten. Xabier Saldiasen beraren pare, jatorrizko Egan taldearen antzera. Baina ardo eta giro alproja gehiagaz, dena kontatzen hasita. Gau hartakoak marka utzi zuen, eta handik sortu zen Edan, 2011ko sanmigeletara arte Euskal Herriko hainbat bazter dantzan ipini zituen erromeria talde bihurria. Irailaren 30 honetan, taldeak 11 urteko isiltasuna apurtu eta erromeria saio bakar bat egingo du berriro, etxean, Iurretako plazan. Koldo Zarate Onaindia abeslariak eta Endika Blanco Bravo trikitilariak erantzun diete galderari.

2011ko sanmigeletan azken erromeria, egin zenuten, Espuelie. Eta irailaren 30ean Azken arda dantza egingo duzue, 11 urteko etena apurtuta. Zergaitik itzulera hau?

Koldo Zarate Onaindia: Hamaika urteko etena barik, bederatzi urteko etena izan behar zen hasiera batean, baina izurria dela-eta bederatzitik hamaikara pasatu gara. Kontua da promesa bategaitik bueltatzen garela, Fleuryko (Paris) zulo beltz batean egindako promesa bategaitik. Gure etxeko kide bat han zegoen eta ez zuen Edan sekula ikusteko aukerarik izan. Guk esan genion posible zuenean kontzertu bat emango genuela. Taldekideok berba hori eman

genuen. Azkenean, kide haren askatasuna ospatzeko, kontzertua egingo dugu.

Kortaturen antzera, Azken arda dantza egingo duzue. Argitzearren: azken kontzertua izango da?

K.Z.O.: Bai, bai. Super-super azkena!
E.B.B.: Iragarri dugun moduan azkena izango da, azken-azkena. Egia esan, oso gogotsu gaude. Gure jatorrizko baxu-jotzailea atzerrian bizi da, eta lortu dugu baxua jotzen duen gure lagunarteko beste kide batek bera ordezkatzera. Pozik eta gogotsu gaude denok.

Hamaika urte hauetan, gizartea eta eszena musikala aldatu egin dira.

Esango nuke Edan mito moduko bat dela, batez ere Iurretan; kontzertua iragarri genuenean ikusmina igarri genuen

Regetoia, trap musika,... estetika musikal berriak sartu dira Euskal Herrian. Edanen erromeria showa ere gaurkotuta dator?

K.Z.O.: Egia esan, ez (barreak). Sorpresak egongo dira, baina bilatzen duguna da sekula ikusi ez gaituen horrentzat eta gainerakoentzat kontzertu bat ematea eta Edanen esentzia hori mantentzea. Gainera, gu geu ere zaharragoak gara!

E.B.B.: Oinarria betikoa izango da, Egan. Baina, ohiko moduan, bestelako elementu batzuk sartzen ahaleginduko gara. Irudimena lantzen batetik, jolaserako tarte bat hartzen bestetik. Esango nuke zeozer freskoa izango dela, sorpresaz beterikoa.

K.Z.O.: Show bat izango da. Ez dira faltako performanceak eta gure buruari barre egiteko elementuak. **Musika tresnak, kantuen letrak, trebezia... hamarkada bat geroago zelan dago taldea?**

K.Z.O.: Apur bat ugertuta gaude, baina pentsatzen genuen baino gutxiago kostatu zaigu kantei berrekitea. Ondo goaz. Nik abeslari lanak egiten ditudanez, nire kasua erosoagoa dela esango nuke.

E.B.B.: Lehenengo entseguak gogortxoak izan ziren. Kostatu zitzaizgun martxa hartzea. Baina, zorienez, gure taldekideen artean bada musikari handi bat: Mikel Nuñez, taldeko teklista. Berak lagundu zion taldeari hasieran, kantak nigaz, trikitilariagaz, baxu-jotzaileagaz eta bateria-jotzaileagaz landuta.

K.Z.O.: David Mínguez baxu-jotzailea ez egotera, Aritz Maldonadok kantak ikasi behar izan dituela izan da berezitasunik handiena. Hasieran, ikasketa prozesu bat egon da. Xabier Zabala bateria-jotzaileak ere urteak zeramatzen bateria astindu barik. Abestiaren zein puntutan sartu behar genuen, zelan sartu,... horrelako kontuak landu behar izan ditugu. Sekula ere ez gara talde ona izan, alde horretatik ez da aldaketa handirik egongo! Ordu eta erdi eszenatikian, ea zelan irauten dugun.

Espuelie, Azken arda dantza, Edanen iruditegian ardo oso presente dagoen elementu bat da. Zer ematen dio ardoak taldeari?

K.Z.O.: Bai, elementu hori hasieratik dago gure artean. *Red red wine* abestitik hasita, erromerietan edatearen kontuari segika, ardo bat

egon da hor. Aspaldi, erromerietan jotzen hasi ginenean bideo bat egin genuen. A Taldea (The A-Team) tele-sailean oinarrituta, zazpi gazte zorok klandestinitatean bizirik iraun ahal izateko upategi bat ostu zutela kontatu genuen bideoan. Bestalde, kuadrillan ere katxondeo asko egiten genuen ardoaren kontuagaz. Baina, gero, kontua da ez dugula ardo askorik edaten!

Azken asteotan kontzerturako giroa berotu duzue sare sozialetan. Adibi-

Kontzertuaren oinarria Egan izango da, baina elementu irudimentsuak, jolastekoak sartuko ditugu

dez, zuen Instagram kontuan taldea osatzen duzuenak ageri zarete, euskal musikari garaikideen irudi ikonikoak imitatzen. Bistakoa da Edanen bihurriketaria egiteko gogoia ez zaizuela joan.

E.B.B.: Bai, kontzertua umoretik, irudimenetik, batzen ahalegintzen gabiltza. Taldekideok orri zuri baten aurrean ipini eta zer egin genezakeen pentsatu dugu. Azkenaldian boladan dauden taldeak zeintzuk diren ikusita, haiei keinu bat egitea bururatu zaigu. Beharbada ez dira gure talderik gustukoena eta kuttonenak izango, baina artista handiak dira, oihartzun handia dutenak. Gure kontzertuaren zabalakundea haien bitartez egitea okurritu zaigu.

K.Z.O.: Bestalde, belaunaldi gaztea-

goagaz konektatzeko modu bat da. Gazteenek beharbada ez dute Kortaturen *Azken guda dantza*-ko azalari egindako erreferentzia ezagutuko, baina ezagutuko dituzte azkenaldian boladan daudenak.

Zer diotsue Edan ezagutu ez duten gazteek? Igartzen duzue haien ikusminik?

K.Z.O.: Bai, Iurretan batez ere. Esango nuke Edan mito moduko bat dela Iurretan. Kontzertua emango genuela iragarri genuenean, ikusmina piztu zela igarri genuen. Hor badago jende bat nostalgikoa, gure erromeriak ikusi zituena, eta beste jende bat ere badago, sekula ikusi ez gaituena. Bai, Iurretan igarri dugu ikusmin hori.

Irailaren 30ean etxean sentituko zarete, Iurretako plazan jotzeaz gainera Durangaldeko beste talde bigaz egongo zaretelako: Baske Street Boys (Abadiño) eta Gora Etorri (Durango) taldeekin.

E.B.B.: Bai, lagunarteko giro hori, familia giro hori, apropos bilatu dugu. Inportantea da guretzat. Baske Street Boysegaz eta Gora Etorrigaz jotzea bada lagunarteko giroa sortzeko bide bat.

Zer esango zeniekete irailaren 30ean Iurretako plazara etorriko direnei?


E.B.B.: Lehen Koldok aipaturiko promesa aintzat hartuta, askatasuna, laguntasuna eta alaitasuna ospatzeko zein aldarrikatzeko kontzertua izango da aldi berean. **K.O.Z.:** Jendeari esango nioke etortzeko. Azkena izango dela, eta etortzeko, gero ez dezaten kontzertuaren berri tabernan penaz jaso (barrez).



REKA
Gosari bereziak eta momentuan egindako pintxoak
Dantzari Auzunea, 4-5 / Iurreta
Tel.: 630 149 417



SERAPIO CALVO
Pladur - Aislamientos - Escayola
TABIKEAK, SABAIK, TRASDOSATUAK
Igeltsu-dekorazioa
Sabai desmontagarriak • Isolatzeak
946 811 512 • 615 789 243
Bidebarrieta, 9 • 48215 Iurreta
info@serapiocalvo.es • www.serapiocalvo.es



TXIRULA MUSIK
Pasión por su vehículo
Tel.: 94 681 26 04



IRIARTE
calderería / burdin lanak
Poligono Industrial Ertzilla, 2 - Pabellones 17-18
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel. 946 814 890 - Fax: 946 816 245
contacto@caldereriairiarte.com
www.caldereriairiarte.com



MOINBE BERRIZ S.L.
MONTAJES Y REPARACIONES INDUSTRIALES BERRIZ
Instalazioak eta konponketak:
PRENTSA HIDRAULIKOAK
PRENTSA MEKANIKOAK
ELIKAGAILUAK
MAKINEN BERRERAIKETA
Arriandi industrialdea, E - 37
Tel: 94 681 24 06 - Mug: 609 34 87 76 - Fax: 94 681 50 89
moinbeberrizsl@gmail.com / 48215 IURRETA / Bizkaia



NIFA S.L.
AUTO-SERVICIOS
VIA LIDER
Pasión por su vehículo
KAMIOIAK (José Antonio)
Tel.: 94 681 26 04
TURISMOAK (Roberto)
Tel.: 94 681 25 66
Mallabiena auzoa, 4
48215 - Iurreta
nifa@autoserviciosnifa.com

Zaldairen mendi martxa Muruganatik igaroko da eta handik Landaederrara jaitsiko dira, baso bidetik

Urte biko parentesiaren ondoren, Iurretako mendi martxa bueltan dator, domekan, ibilbidean moldaketa txiki batez



Betiko moduan, mendi martxak Iurretako plazatik irtengo du, 08:30ean.

MENDI MARTXA • J.D.

Zaldai Mendi Taldeak Iurretako XI. Mendi Martxa antolatu du domekarako. Martxak plazatik irtengo du, 08:30ean, eta ibilbide bi egongo dira, luzea eta laburra. Aurten, aldaketa txiki bat egongo da bietan. Katazka inguruan, Murugana izeneko tontortxotik igaroko dira martxa

biak. Muruganatik Landaederrara jaitsiko dira eta pistatik barik basotik egingo duten tarte hori da nobedadea.

Modu honetara, tontortxo berri bat gehitu diote ibilbideari. Murugana tontorrak ez dio ibilbideari aparteko zailtasunik gehituko, 20 bat metroko desnibel positiboa

bakarrik. Mendizaleek ohi baino beherago izango dute anoa gunea, eta goranzko bidean ere beste bat izango dute.

Ibilbide bi

Mendizaleak ibilbide biren artean aukeratu dezake. Ibilbide luzeak 24 kilometro pasatxo ditu, Muga-

rraren magaletik igaroko da eta, besteak beste, Artatzaganetik (996 metro), Leunganetik (1.006 metro) eta Aizkorritik (812 metro) igaroko da. Guztira, 1.600 metroko desnibel positiboa du.

Ibilbide laburrak 14 kilometro ditu, 620 metroko desnibel positiboagaz. Bitaña, Neberondo eta

Santa Lutzi igarota helduko dira Katazkara. Han, ibilbide berritik jaitsiko dira Landaederrara. Handik, azken txanpa baino ez da geratuko Santa Apoloniatik Iurretako plaza-
ra heldu arte.

Izen-ematea Interneten egiteko aukera atzo amaitu zen. Edozelan ere, egunean bertan badago izena emateko aukera, martxa hasi baino ordu bat lehenagotik aurrera (15 euro).

Ibilbide bi daude aukeran. Luzeak 24 kilometro pasatxo ditu, eta laburrak 14 kilometro

Egunean bertan izena-emateko aukera dago, martxa hasi baino ordubete lehenagotik

Jendea gogotsu

Pandemia dela eta, urte bi joan dira Zaldairen azken mendi martxa antolatu zutenetik. Jendea parte hartzeko gogotsu dagoela adierazi dute mendi taldetik, eta interesa erakutsi duela sare sozialetan. Orokorrean, gainerako herrietako mendi martxetan ere berdina gertatzen dela uste du Zaldaiko Erlantz Zaldunbidek: "Ez da Iurretan bakarrik. Martxa bat egutegian egonkortuta dagoenenan, jendeak bertan parte hartzeko ohitura izaten du. Jende asko dabil herririk herri antolatzen diren martxetan parte hartzen".

www.zuremenua.eus 688614162 info@zuremenua.eus

etxerako zein lantokirako catering zerbitzua

zuremenua
gozatzeko otorduak

ospakizunak • txokoak • herri bazkariak
jaiak • enpresa bazkariak • luntxak

INDARPAK

Pol. Ind. UAI-4 n°12 Arriandi 48215 Iurreta (Bizkaia) · Tel.: 94 681 75 51
moibanez@indarpak.com | www.indarpak.com

ESTANCO IURRETA

Zubiaurre, 3 - 48215 Iurreta
Tel.: 944668237

BIKE&SNOW
UNDARRI
ZURE BIZIKLETA ETA ESKIEN TAILERRA

Aitor Undarri
www.undarri.eus
info@undarri.eus
Tif.: 946 817 808

URALDE
KLINIKA DENTAL
Begoña Zubimendi Goxencia

Uralde 1, Bajo
Esquina Bixente Kapanaga
48215, Iurreta, Bizkaia

667 097 575 · 946 550 055
info@klinikauralde.com
www.klinikauralde.com

Vakasa
Mertzeria

Fray Juan Askondo 1
Iurreta
688 611 737

Iurretako jai batzordeak eguneratu egin gura du jaien hasieran Montoitik botatzen dituzten txapligoen ohitura

Doniel Atxa dela-eta ere, baliteke aldaketak egotea aurten. 20 urtetik gora duen betiko txopoa edo berri bat jasotzea aztertzen dabilta



Jaien hasieran hainbat txapligo jaurtitzen dute Montoiko zubitik.



Donien Atxa Iurretako plazaren erdi-erdian jartzen dute.

JAIK • JONE GUENETXEA

Iurretako jaien hasiera momentu garrantzitsu bik markatzen dute: Montoitik txapligoak botatzeak eta Doniel Atxa jasotzeak. Irailaren 28an, San Migel bezperan, azken 50 urteetan ohitura izan da Montoiko zubitik txapligo ugari jaurtitzea. Aurten, baina, ohitura hau nobedadeekin dator. Jai Batzordeak aho batez erabakita, zazpi txapligo botako dituzte; sei txapligo herriko kofradien izenean eta zazpigarrena herri-

tzi diote. Urtero txapligoak bota izan dituen taldeak botako ditu aurtengoak ere. Hala ere, aurrera begira, urtero txandaka beste herritar batzuek ere parte hartzea pentsatzen dabilta.

Zaharra ala berria?

Jaiei hasiera emateko, Doniel Atxa jasotzea tradizioa da herri askotan. San Migel bezperako dantzarien ekitaldian, hainbat iurretarek parte hartzen du, eta orain urte bi, Covid sasoi-

Jai Batzordeak aho batez erabakita, zazpi txapligo botako dituzte irailaren 28an Montoiko zubitik

Aurreko urteetan erabilitako Doniel Atxak 20 urte baino gehiago ditu eta erreleboa eman gura diote

tik kanpora dauden iurretarren izenean. "Aspalditik egon gara Montoiko txapligoen ohitura hori aldatzeko gogoagaz. Segurtasunagaitik ez ezik, inguruko ongizatera begira, orain arte botatzen zen txapligo kopurua murriztea erabaki dugu, baina esangura batez. Horregaitik pentsatu dugu zazpi txapligoena", azaldu dute Jai Batzordeko kideek. Urte bian jairik barik egon eta gero, aurten ohitura eguneratzeko momentua zela iri-

herritarrek txopo berri bat jaitsi zuten San Andresetik. Txopo hori sikatu beharra zegoen plazan jaso aurretik, eta baliteke aurten sartzea berria. Aurreko urteetan erabilitako Doniel Atxak 20 urte baino gehiago ditu eta erreleboa eman gura diote. Hala ere, Jai Batzordeak eta dantzariak diotenez oraindik ez dakite aurten izango den aldaketa hori. Txopo biak frontoian daude eta erabaki beharko dute zein jaso, zaharra ala berria.

Mikel CARAVANING
www.mikelcaravanning.com
Tel: 944 741 238
info@mikelcaravanning.com
@mikelcaravanning

SALMENTA **OSAGARRIAK**
TAILERRA **APARKALEKUA**

Sterckeman **bambina** **PILOTE** **FENDT** **ORUSS** **RANGOR**

Group Caravanas Mikel Karabanak S.L. | Mallabierna industriagunea | N4 A | 45215 Iurreta | Bizkaia

FURESA
FUNDICION NODULAR

IKUSPEGI BERRIA

Eguneko menua astelehenetik barikura
Asteburuetan kartako menua
Pintxoak eta errazioak egunero
Martitzenetan itxita, asteko atseden eguna

Goiuria auzoa 12, 48215 Iurreta • 944 667 41 08

Ondo pasa San Migeletan!

Ingurukoak errespetatuz gozatu!

gite.com/mig
jai batzordea

Doniel Atxa jasotzea irrati bidez emango dute Laixiar irratiari, zuzenean

LAIXIAR IRRATIA • A. M.

Urte biren ondoren, Doniel Atxa Iurretako plazara bueltatuko da San Migel bezperan. Itzulera hori zuzenean emango dute Laixiar Irrati-kideek. Ez hori bakarrik; aurretik, elkarrizketak ere egingo dituzte, giroa berotzeko. 17:30 inguruan, esatariek plazako protagonistekin berba egingo dute. "Doniel Atxa altxatuko dutenekin berba egingo dugu, ikustera etorriko den jendeagaz, gazte bazkariko antolatzaileekin...", azaldu dute. Gero, Iurretako jaietako ekitaldirik esanguratsuenetakoa dena azalduko dute, ohiko umore ukituagaz.

Jaien ondoren, denboraldi berriari ekingo diote Laixiar Irratiari. Aurten, nobedadez, Badok Hamahiru saioa egingo dute. Bestalde, iaz barikuetan ematen zuten magazineari eutsiko diote, baina baliteke programa hori egunez aldatzea. Irratikoek ez dute oraindino zehaztu zein beste saioak jarraituko duen.

Eraso sexistaren aurkako protokoloa aktibatuko dute Iurretako San Migel jaietan

Udalak, Jai Batzordeak, Auskari neska gazteen taldeak eta Anderebide elkarteak landu dute eta irailaren 23an aktibatu da

IURRETA • AITZIBER BASAURI

San Migel jaietan eraso sexistei aurre egiteko protokoloa landu dute Iurretako Udalak, Jai Batzordeak, Auskari neska gazteen taldeak eta Anderebide elkarteak. Irailaren 23tik urriaren 2ra aktibatuko dute, eraso aurrean erantzun koordinatua emateko. Jaiak "errespetuz" eta "askatasunez" bizi gura dituzte, eraso sexistarik barik.

Txosnagunean gune morea egokituko dute, eta eraso biktimei babesa eta laguntza eskaintzeko 688 755 000 arreta telefono zenbakia egongo da operatibo. Iurretan ez ezik, eraso mugakide den herriren batean gertatuz gero ere emango da arreta; adibidez, eraso etxerako bidean gertatu bada, Itxaso Garamendi zinegotziak argitu duen lez. Tabernariak eta jaien bueltan lanean arituko direnek zerbitzuari eta baliabideei buruzko informazioa izango dute.

Edozein eraso mota dela eta, erantzun bat ematera dei egin du



Auskari neska taldeko, Anderebide elkarteko, udaleko eta Jai Batzordeko ordezkariak agerraldia egin dute asteon.

Anderebide elkarteko Ana Mari Urkidik, eta esan du askotariko materiala erabiliko dela herritarrak sentsibilizatzeko. Bada, Auskari taldeko Maitane Totirikak eta Laia Gurrutxagak azaldu

dute eraso sexistaren baten berri badute, jaiak eten egingo direla eta informazio gune bat ipiniko dutela. Eta intentsitate handiko eraso sexista bat gertatuz gero, 112ra deituko dutela, eta esze-

natokira igoko direla aurkako jarrera azaltzeko. Jai Batzordeko Itziar Onaindiak dio ez dela eraso sexista edo arrazistarik onartuko, ezta LGTBI+ kolektiboaren kontrarik ere.

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
 Tel.: 946 816 673
 Bixente Kapanaga 19, behea
 48215, Iurreta



DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak



LETRA ZOPA

Bazara gai beheko berba hauek guztiak topatzeko ?


- | | |
|-------------------|---------------|
| 1- Estralurtarra | 6- Eulia |
| 2- Espazioa | 7- Kometa |
| 3- Astronauta | 8- Eguzkia |
| 4- Espazio-ontzia | 9- Sateliteak |
| 5- Planetak | |



I	R	Y	A	G	V	I	K	Q	E	S	I	E	F
Y	E	D	G	T	S	E	T	E	S	J	C	S	W
N	S	F	O	A	D	C	W	W	T	K	O	P	B
Y	P	M	X	G	O	S	P	W	R	O	J	A	T
N	A	J	O	E	B	A	L	R	A	M	Y	Z	V
A	Z	O	J	K	E	T	A	V	L	E	V	I	B
P	I	R	F	K	M	E	N	T	U	T	U	O	M
M	O	J	Q	P	K	L	E	S	R	A	F	O	E
W	A	U	K	E	X	I	T	V	T	J	H	N	G
D	N	C	U	O	L	T	A	X	A	M	B	T	U
L	N	O	R	E	T	E	K	G	R	F	A	Z	Z
P	Z	S	A	E	N	A	N	D	R	O	Y	I	K
Z	L	A	D	A	K	K	Y	H	A	X	W	A	I
A	S	T	R	O	N	A	U	T	A	F	X	Y	A



LABIRINTOIA



Artzain Eguna

JAIA Atxondo :: Irailak 24



Gazta lehiaketa eta ardi eta ahari erakusketa egongo dira Axpen

Bizkaiko Latxa eta Karrantzar Arrazetako Ardi Hazleen Elkar-teak antolatuta, Artzain Eguna ospatuko dute Atxondon, zapatuan, irailaren 24an, eta goiz osorako egitaraua osatu dute, Atxondoko Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaur-laritzaren babesagaz.

Ekitaldiak 11:00etan hasiko dituzte. Ordu horretan, jendarteak ebaluatoriko gazta txapelketa, eta ardi eta ahari erakusketa hasi-

ko dira, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Horrez gainera, ardi txakur txapelketa ikusteko aukera izango dute Axpera bertaraturiko bisitariak. Txakurren saioa 12:00etan hasiko da. Eguna borobiltzeko, ardi-mozte erakusketa ere prestatu dute antolatzaileek. Ardi txakur txapelketagaz batera hasiko da saioa. Eguerdian emango diote amaiera egitarauari, 13:30 inguruan, sari banaketagaz.

Irailaren 23an

BERRIZ antzerkia

'Kimera' (La Banda Teatro zirkuko konpainia), 16:30ean, eskolako patioan.

DURANGO Goienkaleko jaiak

Txupinazoa eta Ama Birjinari aureskua, 20:00etan.
Sugari fanfarrea, 20:00etan.
DJ festa: Goikolea, 21:30ean.

DURANGO antzerkia

'Sexberdinak' (Tanttaka Teatro), 20:00etan, San Agustin kulturegunean.

MALLABIA urteurren jaia

Mallabia futbol taldearen 25. urteurrena.
Gazte parkea, 16:15ean, Azkaldea kaleko futbol zelaietan.
Kantu Kolore, 20:00etan, frontoian.

ZALDIBAR bertsoak

Bertso afaria: Jone Uria eta Aitor Mendiluze. 21:00etan, Goierriko auzo etxean. Sarrerak Castet, Paula, Negugogor, Sorgin eta Karobin, 20 euroan.

Irailaren 24an

ABADIÑO antzerkia

'La gata sobre el tejado de zink' (Zuz: Ivan Iparragirre), 19:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ jaia

Bizi Berriz Jaia.
Gazteentzako ekintzak:
Tirolina eta kart zirkuitua, 11:30etik 13:30era eta

16:30etik 20:30era, Olakueta plazan.

Kalejira, 17:30ean, Kantoi plazatik Olakueta.

DURANGO Goienkaleko jaiak

Sardina jana, 13:00ean, Andra Marian.
Mexikanadak, 13:30ean.
Paella lehiaketa, 14:00etan.
Sugari fanfarrea, 17:30ean.
Hildakoen omenezko meza, 19:00etan, Santa Ana elizan.
Dantzaldia: Luhartz taldea, 21:30ean.

ELORRIO deia

Zumelegi errekarren garbiketa. Izena emateko, Anbotopekon, Iturri Kultur Etxean edo www.anbotopeko.eus atarian.

MALLABIA urteurren jaia

Mallabia futbol taldearen 25. urteurrena.
Ping-pong saioa, 10:00etan, parkeko aterpean.
DJ Txurru + txosna + jolasak, 18:00etan, Eskolako frontoian.
1997ko presidenteei eta jokalariei omenaldia, 21:00etan.

OTXANDIO musika

Alos Quartet (Xabier Zeberio eta Francisco Herrero bibolinagaz, Lorena Núñez biolagaz, Ivan Carmona biolontxeloagaz eta Ivan Alzate baxuagaz), 18:30ean, Mekoletan.

ZORNOTZA musika

Alzola Trío, 20:00etan, Boroako San Pedro basilizan.

Irailaren 25ean

DURANGO ekitaldia

Oroimen ekitaldia, 12:00etan, Ezkurdin. 1936ko irailaren 25eko gertakariaren ondorioz hil ziren guztien aitortza Gerediaga elkarteak eta Durango 1936 elkarteak antolatuta.

DURANGO Goienkaleko jaiak

Kalejira Udal Bandagaz, 13:00ean, kaleetan zehar.
Gilda lehiaketa, 13:00ean.
Patata tortilla lehiaketa, 13:00ean.
Kalejira Triki Trixas taldeagaz, 13:30ean.
Erretiratuen bazkaria, 14:30ean (Txantonesa).
Mus txapelketa, 16:30ean (izena emateko, Gura Kabiyan).
Igel txapelketa, 16:30ean (Rugby taberna).
Zumba solidarioa Angelman elkarteari laguntzeko, 17:00etan.
Txokolatada, 18:30ean (Rugby taberna).
Kalejira Triki Trixas taldeagaz, 18:30ean.
Jaien amaiera, 20:30ean.

ELORRIO antzerkia

'Oilar bat dago zure teilatuan' (Tititriguri konpainia), 17:00etan Arriola Antzokian.

IURRETA irteera

Zaldaren mendi martxa, 08:30ean, Aita San Migel plazan irtenda. Ibilbide bi egongo dira: luzea, 24 kilometrokoa, 1.600 metroko desnibel positiboagaz, eta laburra, 14 kilometrokoa, 620 metroko desnibelagaz.

MALLABIA urteurren jaia

Mallabia futbol taldearen 25. urteurrena.

Haurrentzako ping-pong saioa, 10:00etan, parkeko aterpean.

Jolas tradizionalak (16 urtetik gorakoentzat), 18:00etan.

ZORNOTZA musika

Bilboko Ganbara Orkestra eta Abesbatza, 19:00etan, Larreako San Juan Bautista elizan.

Irailaren 25era bitartean

DURANGO erakusketa

'Begizulo' erakusketa, Arte eta Historia museoa. Bideoa, argia eta pintura uztartzen dituen Ismael Iglesiasen artelanak.

Irailaren 30ean

ELORRIO antzerkia

'Magallanes y Elcano' (Ajidanha konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA musika

Galma Boskotea, 20:00etan, Garaitondoko San Isidro basilizan.

Irailaren 30era bitartean

ZORNOTZA erakusketa

'Solo personal autorizado', Zelaieta Zentroan. Eduardo Martínez argazkilari bilbotarraren argazkiak.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Modelo 77

barikua 23: 18:30/21:00
zapatua 24: 18:30/21:00
domeka 25: 18:00/20:30
astelehena 26: 18:00 /20:15
martitzena 27: 18:00 /20:15
eguztzena 28: 19:00

• No te preocupes querida

barikua 23: 18:30/21:00
zapatua 24: 18:30/21:00
domeka 25: 18:00 /20:30
astelehena 26: 18:00 /20:15
martitzena 27: 18:00 /20:15
eguztzena 28: 19:00

• Spider-Man: No way home

barikua 23: 20:30
zapatua 24: 17:00
domeka 25: 17:00

• La vida padre

barikua 23: 18:30
zapatua 24: 20:00
domeka 25: 20:00
astelehena 26: 18:00/20:15
martitzena 27: 18:00

• Elcano: El viaje más largo

eguztzena 28: 19:00

• Madame Butterfly

(opera zuzenean)
martitzena 27: 20:15

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• Cinco Lobitos

zapatua 24: 20:00
domeka 25: 20:00
astelehena 26: 20:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• La Vida Padre

barikua 23: 20:00
zapatua 24: 20:00
domeka 25: 20:00
astelehena 26: 20:15

• Tadeo Jones 3: La Tabla Esmeralda

zapatua 24: 17:00
domeka 25: 17:00



**UDAKO
8. ARGAZKI
LEHIAKETA**

 **anboto**

Eman zure botoa udako argazki lehiaketan

Bozkatu www.anboto.org webgunean
Irailaren 25ra arte

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK


databost
Informatika & Telekomunikazioak


Alcampo
DURANGO


Garaiko
Landetxea

MUSIKA • A.M.

Dozenaka proiektutan ibilitakoa (eta dabilena) da Mikel Núñez musikari durangarra: Mississippi Queen, Josu Bergara eta Bilbao Lindy Band, besteak beste. Josu Salegigaz, Jon Ander Amigogaz eta Unai Olabarri-gaz batera, Xahu jazz laukotea sortu du. Oraintsu, Gero gerokoak diskoa kaleratu dute, Errabal zigiluagaz batera. Hainbat kontzertu eman dute taldea sortu dutenetik.

Zer da Sahu?

Lagun arteko talde bat da. Denok elkar ezagutzen genuen lehendik, Musikene Goi Mailako Musika Ikastegian ikasitakoak gara eta. Aspaldiko partez, elkarregaz jotzeko geratu ginen laurok, gure abesti eta ideia propioak abiapuntu hartuta. Handik denbora batera, kontzertu bat emateko proposamena jaso genuen, eta hor entsegu lokalekoari forma ematen hasia erabaki genuen.

Ibilbidea oso naturala izan da, beraz. Bai, oso natural sortu zen dena. Lau lagun geratu ginen entseatzeko, elkarregaz jotzearen, eta gero Bilboko Hacería Jazz Clubeko proposamena etorri zen. Talde egoiliar lez aritu ginen bertan.

Aurretik talde ugaritan ibilitakoa zara, eta musikari askogaz ere aritu zara. Xahu gehiago hurbiltzen da zuk gura duzun horretara?

Proiektua martxan ipini genuenean, bakoitzak bere proposamenak ekarri zituen eta, hori dela eta, diskoa apur bat heterogeneoa geratu dela esango nuke. Nik neure proiektu lez sentitzen dut. Beste kasu batzuetan, beste musikari batzuen musika jo izan dut; beti ahalegindu naiz neure ekarpenak egiten, ahal izan dudanean neurrian, baina beti besteen esanetara. Kasu honetan ez, denon artean hartzen ditugu erabakiak. Hemen guztiz libre nago.

Diskoa heterogeneoa geratu dela diozu. Zelan definituko zenuke Xahu?

Jazza da. Eta jazzaren barruan, esan dudanean moduan, oso disko heterogeneoa geratu zaigu, estilo askotatik edaten dugulako, bai doinu tradizionaletatik eta baita garaikideetatik ere. Ez dakit zelan sailkatu,

“Geroago eta jazz jaialdi txiki gehiago dago eta guretzat aukera ona dira”

Musikenen elkar ezagutu zuten lau lagun berriro elkartzeko asmo xumeagaz sortu dute Xahu; tartean, Mikel Núñez durangarrak; 'Gero gerokoak' deituriko lana kaleratu dute



jazz garaikidea dela esango nuke, nahiko ikutu tradizional batez. Azken finean, XXI. mendean gaude eta jazz egiten gabiltza.

Non dago salgai diskoa?

Oraingoz, webgunean dugu salgai. Dena dela, Errabal zigiluagaz kaleratu dugu eta badakigu dendetan ere hasia direla banatzen. Horrez gainera, hurbileko norbaitek erosi gura izanez gero, mezu bat bidali diezaguke. Plataforma digitaletan ere entzugai dago jada.

Diskoa grabatzen ala zuzenean moldatu zarete hobeto?

Grabatzen ere bai, baina zuzenean oso gustura ibili gara. Abestiak oso barneratuta ditugu eta kontzertu

Xahu, Musikeneren ondorengo elkargunea den proiektua

Xahu osatzen duten taldeki-deek dozenaka proiektutan parte hartu dute Xahuren aurretik, eta gaur egun ere hala dabilta. Hala ere, euren lehentasunetako proiektutzat dute hau. Unai Olabarri bateria-jotzaileak Herbehereetarako bidea hartu zuen Musikeneko ikasketak amaitu eta gero, eta handik AEBetara jo zuen, ikas-

ketak jarraitzeko. Deborah Carter, Dave Glasser eta Andrzej Olejniczak musikariek aritu da, besteak beste. Jon Ander Amigo baxu-jotzaileak Mr Bop Trio eta Charlie Don't jazz proiektuetan aritu da. Josu Salegi saxofonistak Brenda Holloway eta The Contours taldeekin igo da oholta gainera, besteak beste.

bakoitza ere desberdina izan da. Publikoaren eta lekuaren arabera ere gehiago edo gutxiago jolastu ahal izan dugu. Baina oso gustora denetan. Oraingoz, ez daukagu beste kontzerturik lotuta, baina kontzertu bila gabiltza. Ea udazkeneko edo neguko zikloetan sartu gaitzkeen. Zerbaitek irtengo du, baina ez dugu data zehatzik itxita oraindino.

Hainbat kontzertu egin duzue hile hauetan.

Apirilean diskoa grabatu genuenetik, nahikoa ibili gara. Ez dugu kontzertu askorik egin, gatxa delako kontzertuak lotzea. Debako Jazz Blai jaialdian, Munijazzen, Villalac-reko La Noche Encendidan, Bilboko Guggenheim museoa... iaz Bilboko Bidebarrieta liburutegian ere egon ginen. Kontzertu txiki gehiago ere eman dugu.

“**Oraingoz webgunean dugu salgai diskoa. Badakigu, baina, Errabal hasi dela banaketagaz**”

Geroago eta jazz jaialdi gehiago dagoela esango zenuke?

Bai, nabaria da geroago eta jazz jaialdi txiki gehiago dagoela. Batez ere, udan egiten diren ziklo txikien kopurua hazi da. Guretzat beste aukera bat da horiek hor egotea, oso ezagunak diren jaialdiez gainera. Adibideetarako bat lehen aipatu dizudan Munijazz jaialdia da. Munilla Errioxan dagoen herri txiki bat da; 200 bat biztanle ditu neguan, baina udan izugarri hazten da bertako biztanleria. Neguan ez da ia ezer egoten, baina oraintsu lagun biko lantalde bat batu da, jazzagazko interesa dutenak, eta oso jaialdi interesgarria egin dute. Eta horrelako herriak geroago eta gehiago daude, zerbait egin gura duten lagunak batu, eta egin egiten dutenak. Ea jazzaren moda hau harrapatu eta aprobetxatzeko aukera dugun!

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



Artxiboko irudia.

Udazken txistulari taldeak anfitrioi lanak egingo ditu XX. Txistu Egunean

Zortzi txistu taldek parte hartuko dute Txistu Egunean; 17:00etan hasiko da egitaraua

TXISTU EGUNA • A. M.

Beste urte batez, Txistu Eguna ospatuko dute Zornotzan. XX. edizioa izango da aurtengoa. "Txistua zabaltzeko lan egiten dugu, gure kultura tradizionalari loturiko musika tresna den neurrian, baita bizirik jarraitzeko eta egungo gizartearen parte izaten jarraitzea bultzatzeko", azaldu dute Udazken txistu taldeko kideek ohar baten bitartez. Hain zuzen ere, Udazken txistu taldea arduratu da Txistu Eguna antolatzeaz. Guztira, zortzi taldek parte hartuko dute egun

berezi honetan: Iruñeko Oskiak, Eibarko Usartzak, Legazpiko Goiz Deiak, Lekeitioko Itxaropenak, Bermeoko Kankinkabarrak, Errenteriako Gazteak, Durangoko Jaizalek eta Udazken txistu taldeak parte hartuko dute. Taldeak 17:00etan hasiko dira herrian zehar txistua jotzen; Zelaieta zentroan batuko dira denak, 18:00etan, eta handik hasita Zornotzako gunerik garrantzitsuenak zeharkatuko dituzte.

Txistulari Eguna ez da Udazkenek urtero antolatzen duen ekitaldi bakarra. Azken 22 ur-

teetan Karmengo jaietan txistu kontzertua egin izan dute beste herri batzuetako musikari, abesbatza eta abeslari gonbidatuekin. Horrez gainera, domeketan kalejira egiten dute (abuztuan izan ezik), eta Zornotzako auzoetako jaietan ere parte hartzen dute.

Ogenbarrenako jaiak

Asteburuan Ogenbarrenako jaiak ospatuko dituzte. Udazken txistulari taldeko iturrien arabera, Txistu Egunean parte hartuko duten taldeak ere arituko dira bertan. 19:00etan izango da hori.

Pagonabarraga eta Amuriza Txapelketa Nagusiari ekitear

Gorka Pagonabarragak eta Miren Amurizak Arrasateko kanporaketan abestuko dute, domekan, 17:00etan

BERTSOLARITZA • A. M.

Zapatuan hasiko da Bertsolari Txapelketa Nagusia, Getxon (Bizkaia). 2022ko Txapelketa Nagusi honetan, Durangaldeko hiru bertsolarik parte hartuko dute: Aitor Bizkarra abadiñarrak, Miren Amuriza berrizarrak eta Gorka Pagonabarraga durangarrak. Azken bi hauek domekan izango dute lehenengo kanporaketa saioa, Arrasaten (Gipuzkoan). Amurizak eta Pagonabarragak Iñaki Apalategigaz, Joanes Illarregigaz, Saioa

Alkaizagaz eta Xabier Silveiragaz batera abestuko dute; Ander Aranburu izango da gai emalea. Amaia antzokian izango da saioa eta sarrerak bertsolarierak.eus atarian daude salgai. Amurizak laugarren Txapelketa Nagusia du aurtengoa; Pagonabarragarentzat, ostera, lehenengoa da; Aitor Bizkarrarentzat ere lehenengo Txapelketa Nagusia izango da; Bizkarraren lehenengo kanporaketa urriaren 9an izango da, Lizarrako (Nafarroa) Los Llanos kulturagunean.



Miren Amuriza, Txapelketa Nagusiaren aurkezpenean. ALBERTO ELOSEGI

Gai librean

Zuzen

Ez dut zuzen joan nahi. Aspertu egiten nau zuzen joateak. Ez dut zuzen joan nahi. Aspertu egiten nau zuzen joateak. Ez dut zuzen joan nahi. Aspertu egiten nau zuzen joateak. Eta konturatu orduko zuzen joaten nabil, kalean artez, alboetara begiratu gabe, azkar. Konturatu gabe hartu dut errepidea, ordaindu dut bidesaria (zein da saria?) eta abiadura azkartu dut, 120km/ordura. Eta konturatu orduko pentsatzen pasatu dut bidaia osoa, pentsamendu bat bata bestearen atzetik jarritz, ilaran, arnagunerik gabe. Konturatu gabe piztu dut ordenagailua, egin dut goizko errutina konprobatzailea eta martxan nago jada. Noiztik da jada? Ez dut hasiera gogoratzen.

Esan zidaten zuzen ibiltzeko, esan zioten zuzen joateko amamaren etxera, esan ziguten zuzenak izateko, esan zieten zuzen irizteko, esan zizueten zuzen



Eider Chavez Gallastegui
Irakaslea

Atera etekina denbora eta espazioari, esplotatu lehengaia baliagarriak bailiran

Okertuta joan nahiko nuke, eseak egin, aulkian tolestu, biderik luzeena egin eta prisarik gabe egin

ipintzeko. Esaten jarraitzen digute zuzen egoteko.

Ez da kasualitatea 'zuzen' hitzak hainbeste adiera izatea. Geometrian bi puntu batzen dituen lerrorik motzena da; etikan, 'zuzena' ona eta justua denarekin erlazionatzen da; erantzun 'zuzen' bat erantzun egoki bat da, akats bakoa; 'zuzen' hitzak berehala ere esan nahi du, atoan. 'Zuzen', artez ere bada, "recto" gaztelaniaz. Eta denek dute, ez kasualitatez, zapore berdintsu bat. Denak ari dira,

angelu ezberdinetatik, mezu bera bidaltzen: ez galdu denborarik, ez izkintan, ez distrakzioetan, ez arraildura edo zimurretan, ezta galderetan ere. Atera etekina denbora eta espazioari, esplotatu lehengaia baliagarriak bailiran. Egin denbora tarte laburrenean distantziarik produktiboena (hezurren artean, hirien artean, emozioen artean, e.a.).

Baina ni gogaitu naiz, bizkarra nekatu zait, begiak itxi zaizkit, usaimean abandonatu nau, ez dakit denbora galtzea zer den eta denbora galdu nahi dut, edo denboran galtzea nahi dut, denborak ni lapur nazan, eraman nazala at. Okertuta joan nahiko nuke, eseak egin, aulkian tolestu, biderik luzeena egin, eta prisarik gabe egin.

Agian zuzentasunetik despistatzeko egiten dut hau, edo zuzentasuna bera despistatzeko; eta zalantzari, bihurguneari, etenari eta barrunbeei lekua egiteko.



Edurne Azpitarte Agirregomezkorta

Beti Gol taldeko jokalaria eta presidentea izan da sorreratik

GARAI | 1978

“Hasi nintzenerako, nire urterik onenak joanda zeuden, baina urte hauek topera aprobetxatu ditut”

Zornotzako Beti Gol taldeko jokalaria, kapitain, presidente eta sortzaileetarikoa den Edurne Azpitarte erretiratu egin da aurten

ARETO FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO
Beti Golen sorreran egon zen eta ametsa zuena errealitate bilhurtzeko aukera izan zuen: areto futboleko jokatzeko. 38 urte zituen. Klubari dena eman dio eta klubetik asko jaso du. Aurten erretiratu egin da eta joan zen asteburuan omendu egon zuten.

Pena ematen dizu erretiroa hartzeak?

Bai, jakina. Begira, pandemian erretiroa hartzekotan egon nintzen, baina taldekideek beste urtebete jarraitzeko eskatu zidaten, kantxan agurtu behar nintzela. Konbentzitu egin ninduten. Baina, abenduan, lesionatu eta meniskoa apurtu nuen. Adin bat ere badut eta banekien hortxe amaitu zela. Kantxan agurtzea ez zen posible izan. **Joan zen asteburuko sorpresak arinduko zizun apur bat pena hori.** Zelako sorpresa! Ez nuen itxaroten eta oso hunkigarria izan zen. Torneo bat geneukan eta omenaldi bat egin zidaten. Taldekide guztiek nire kamiseta sinatu zidaten. Nire familia ere hantxe egon zen, itzela izan zen.

Zure omenaldian ere ez zinen geldirik egon.

Esatari lanetan aritu nintzen asteburu osoan. Gauza bat da kluba

beste batzuek eramatea, baina beste bat guztiz desagertzea. Nik ahal dudanetan lagunduko diet. **Zure kasua kuriooa da, lehenengo partidu ofiziala 38 urtegez jokatu zenuen eta. Beterano baten debuta izan zen.**

Kirola umetan deskubritu nuen, baina sekula ere ez dut izan talde batean serio jokatzeko aukerarik. Zelan hasi nintzen? Bada, alaba biak Andra Mariko ikastolan dabilta eta hantxe hasi zen dena, eskolako patioan. Baloi bat ikusi eta jokatzeko gogoia sartzen zitzaidan. Beste ama batek esan zidan bera atezain izandakoa zela. Eta horrela hasi ginen batzen eta jokalaria berriak bilatzen. Kluba 2016an sortu zen ofizialki.

Urte hauetan, itxaroten zenuen beste gozatu duzu?

Espero nuen baino gehiago. Asko gozatu dut. Azken batean, ni hasi nintzenerako, nire urterik onenak joanda zeuden, 38 urtegez... Baina urte hauek asko asebeste naute eta topera aprobetxatu ditut. Bromeetan beti esaten dut orain trankil hil naitekeela.

Jokalaria ez ezik klubeko presidentea ere izan zara. Presidente jokalaria, alajaina!

Inork ere ez zuen presidente izan gura, eta baten bat izan behar! Ho-

Inork ere ez zuen presidente izan gura, eta horregaitik hartu nuen kargua. Taldeko kapitaina ere izan naiz, baina ni beste bat gehiago sentitu naiz beti, ez inoren gainetik

rregaitik hartu nuen kargua. Gero 'presi' deitzen zidaten denek. Taldeko kapitaina ere izan naiz. Eurek proposatu zidaten kapitaina izatea, eta nik, ba, denari baiezkoa. Baina ni beste bat gehiago izan eta sentitu naiz beti, ez inoren gainetik.

Eta zein da uzten duzun legatua?

Oso lehiakorra den talde bat uzten dut. Adibide bat: asteburuko torneo lehenengoz irabazi genuen, lau aldiren ondoren. Eta aurkariak ez ziren edozelangoak, liga goian

amaitu zuten taldeak ziren. Denboraldi honetan sorpresa eman dezakegula uste dut. Zuzendaritzari dagokionez, Irati Lejarraga izango da nire ordezkoa, eta seguru nago bikain egingo duela.

Urte hauetan, emakumeen areto futbolaren egoera bertatik bertara ezagutu duzu. Zelan ikusten duzu gaur egungo egoera?

Alde batetik, gaur egun baditugu erreferentzia batzuk, futboleko bada ere: Athletic, Real... Eta geroago eta ikusgaitasun handiagoa dute. Hor aurrerapausoak eman dira. Areto futboleko gatzagoa da. Esango nuke emakumezko talderik gehienak aurretik existitzen ziren gizonen klubetako adarrak direla. Hau da, gizonen kluba zegoen lehenengo, eta emakumeena sortu dute gero. Baina sorreratik bertatik emakumeena den klub oso gutxi dago; Bizkaian bi baino ez, eta geu gara eurretari bat. Lehen mutiletan gertatzen zena gertatzen da nesketan: futboleko etapa amaitzen dutenean hasten dira asko areto futboleko. Gakoa litzateke umetan hastea, beste kirol batzuetan lez. Ere hori zelan indartu pentsatu beharko litzateke beharbada.

Baduzu bereziki gogoan geratu zaizun partidu bat?

Derbiak oso partidu politak izaten dira. Mendibeltz, Elorrioko Buskantza... partidu bereziak izaten dira. Hain zuzen ere, Elorrioko Buskantzaaren kontra jokaturiko bat sekula ere ez dut ahaztuko. Beti Golen historiako lehenengo partidua euren kontra jokatu genuen, Elorrion, eta 17-0 galdu genuen. Talde hasiberria dagoeneko eginda zegoen baten kontra... beste maila bat zen. Bueltakoan, etxean, husna berdindu genuen.

Jokari lez, zelakoa izan zara?

Egia esanda, ez naiz oso ona izan, baina jokatzeko asko gustatu zait eta asko gozatu dut. Nire lana gehiago izan da animoak ematea, jendea motibatzea... alderdi mentala lantzen ahalegindu naiz.



Edurne Azpitarte eskuman, taldekideekin, joan zen asteburuko torneoan.

Durango Neskak Rugby Txapela jokoan zapatuan, Arripausuetan

Bost taldek eta talde guztietako jokalariekin osaturiko Neskarians-ek parte hartuko dute torneoko hirugarren aldian

ERRUGBIA • J.D.

Durango Neskak Rugby Txapela txapelketak hirugarren aldia egingo du zapatuan, 15:00etan hasita. Sei talde lehiatuko dira, multzo bitan banatuta. Bata Durango Rugby Taldeak, Bera Berak eta Sarako Izarrak-ek osatuko dute; bestea, Gaztedik, Hernanik eta Neskarians-ek.

Neskarians taldea berezia da. Talde guztietako jokalariekin eratuko da. Horrela, errugbiaren filosofia eta balioak sustatu gura dituzte. Adibidez, elkartasuna.

Partiduek 25 minutuko iraupena izango dute, txapelketari bizitasuna emateko. Dena aurreikusitako moduan badoa, bi-

garren fasea 18:15ean hasiko da. Hirugarren eta bigarren sailkatuak erabakiko dira lehenengo. Finala 19:15ean hasita aurreikusita dago.

Aurrekariak

Durango Rugby Taldeak urte birik behin antolatzen du txapelketa. 2017koa DRTk irabazi zuen, eta 2019koa Iruñeko La Unicak. Aurten lehia estua itxaroten dute.

La Salve Garagardoak da torneoko babeslea, eta Durangoko Udala, Durango Kirolak, Aldundia eta Jaurlaritzak laguntzaileak.



DRTko jokalariek eta ordezkariek, eta Durangoko udal arduradunak aurkezpenean. DRT

Leungane eta Obako Atxak ezagutzeko aukera, Alpinoren urriaren 2ko mendi irteeran

'Durangaldeko Gandorrrak' izeneko ibilbideak 23 kilometro ditu, eta 1.150 metroko desnibela



Alpino Tabira mendi klubaren irteerak 53. aldian beteko du aurten.

MENDI IRTEERA • J.D.

Ohitura duen legez, Alpino Tabira mendi klubak Durangaldeko Gandorrrak ibilaldiaren aldi berri bat antolatu du urriaren 2rako, hileko lehenengo domekarako. Aurten goa 53. edizioa izango da.

Durangaldeko Gandorrrak ibilaldia Durangon hasiko da, Alpinok Goienkalen duen egoitzaren, 08:00etan. Mañariara joan eta handik Leunganera igoko dira; eguraldiak laguntzen badu, ezohiko bide batetik igoko dira. Leunganetik gandra jarraituz, Obako

Atxetik igaroko dira Inunganera heldu aurretik; han anoa gunea izango dute. Ondoren, bueltako bideari ekingo diote, berriro Mañarirako bidea hartuta. Guztira, 23 bat kilometroko ibilbidea da, 1.150 metroko desnibelekoa.

Izen-ematea irailaren 29ra arte egin daiteke (alpino@alpino-tabira.org) eta doakoa da, baina ezinbestekoa da mendian federatuta egotea. Egunean bertan ez dute izen-ematerik onartuko, antolatzaileek jakinarazi dute.

Jokaldia

Hasi eta 6. martxa sartu

Egunotan, aurtengo denboraldiari hasiera eman diogu, gure kirolaren eremu guztietan, nahiz eta oraindik txapelketak, ligak, hasi barik egon. Urrian sartuko gara laster, eta bertan, talde guztiak hasiko dira martxan, batzuk hasita dauden arren.

Aurtengo denboraldia gogotsu dator. Zorionez, ez dugu inongo murrizketarik izango. Aurreko hiru denboraldiek, COVIDa zela eta, hainbat arazo ekarri zituen, baina denon lanarekin aurrera atera ginen.

Teknei Bizkaia Zornotza zilarrezko LEB mailan, eta neskak 2. Mailan aurreko denboraldian igoera lortuta, Tabirako Baqué mutilak EBA mailan aurreko denboraldian igoera lortuta ere, eta neskak 1. mailan, Zaldia, neskak Bizkaia 1.



Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia

Gure inguruan, zorionez, gero eta aukera gehiago ditugu saskibaloian aritzeko. Zoriontzekoa da benetan.

Era berean, epe labur eta ertainerako, oinarriak lantzeko lanak ez ditzagun alde batera utzi

mailan, igoera fasea irabazita aurreko urtean... Abadiñon ere saskibaloia klubak martxan, Berrizen...

Gure inguruan, zorionez, gero eta aukera gehiago ditugu saskibaloian aritzeko. Zoriontzekoa benetan. Azpitik ere, Eskola Kirolean talde asko ditugu, aurreko urtean baino gehiago. Hori

bai, neskak dira saskibaloian arituko direnak gehien. Ez noa portzentajeetan sartzen baina mutil eta neska saskibaloilarien artean alde handia dago. Oso handia. Azpiko mutilen taldeak gero eta gutxiago eraten dira.

Esan dugun moduan, talde asko eratu dira. Gero eta gehiago. Eta hori guztia ez zan posible izango entrenatzaile arituko direnak gabe. Eskerririk asko! Baina guzti hau, zaindu, landu, osatu eta indartu egin behar dugu. Beraiek dira gure saskibaloian etorkizuna landu eta bermatuko dutenak.

Hala ere, ohikoak eta egunerokoak ez gaitzala itsutu. Ondo bideratuko dira eta aurtengo kirol helburu guztiak lortuko ditugu, baina, era berean, epe laburreko eta ertainerako, oinarriak lantzeko eta eratzeko lanak ez ditzagun alde batera utzi. Aurrera!



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



TRONPERRI
Etxebizitza altua. Erdialdean. 120 m². 4 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Ganbara. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Solariuma eta toko komunitarioa.
286.000€ C.E.E=F



ALLUITZ
4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. TERRAZA. Etxe osoak kanpora ematen du.
245.000 € C.E.E=E



ABADIÑO
DUPLIXA. Eguzkitsua. 2 solairutan banatuta. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Trastelekua. Garajea.
230.000 € C.E.E=E



ZALDIBAR
85 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
157.000€ C.E.E=F



KOMENTUKALE
4 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea.
239.500 € C.E.E.= E



BERRIZ
80m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Argitsua.
110.000€ C.E.E=E

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baseri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baseri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baseri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai.

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxia salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL

INDUSTRIALA ALOKAIUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
75 m²
3 logela
KALEBARRIA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Lehenengo solairua igogailu barik. Etxe erdiak kanpora ematen du (Ekialdea) Erdialdean kokatua. 5 m²-ko ganbara. Zure gustura jartzeko aproposa. ITE oraintsu pasatutakoa.
137.000 € C.E.E: E



DURANGO
120 m²
3 logela
GASTEIZ BIDEA: Egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du, (hego-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Herriko irteeratik gertu. Egoera onean.
178.000€ C.E.E:E Bidean



DURANGO
75 m²
3 logela
ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hegoalde) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriko zerbitzu guneetatik gertu (eskola, supermerkatua,...) Egoera onean.
187.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO
93 m²
3 logela
IBAIZABAL: (2.006 urtean eraikia). Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-hegoalde) Argitsua. Leku onean kokatua (zonalde berdeak, eta zerbitzuguneak) Egoera onean. 29,70 m²-ko garaje bikoitza itxia eta 10,67m²-ko ganbara.
380.000 € C.E.E: Bidean



MATIENA
58 m²
3 logela
TRANAETXOSTE: Egongela, sukalde jantzia (berriztatua), 3 logela eta komuna (berriztatua) eta despentsa. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (Ekialdea) Leku onean kokatua. Aparkalekua. 4 m²-ko ganbara. ITE oraintsu pasatutakoa. Bizitzera sartzeko moduan.
124.000 € C.E.E:E



BERRIZ
68 m²
2 logela
ITURRIZA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Ganbara. Egoera onean. ITE oraintsu pasatutakoa.
129.000 € C.E.E: E

//DURANGO

ARTEKALE KALEA: Logela, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua.
150.000 € / E.E.Z=F

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran.
180.000 € / E.E.Z=E

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua.
320.000 € / E.E.Z=E

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia.
250.000 € / E.E.Z=E

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera.
350.000 € / E.E.Z=F

JUAN DE OLAZARAN: 3 egongela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea.
385.000 € / E.E.Z=B

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia.
230.000 € / E.E.Z=E

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta.
195.000 € / E.E.Z=E

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
150.000 € / E.E.Z=F

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia.
390.000 € / E.E.Z=D

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 120.000 € ORAIN 105.000€ / E.E.Z=F

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeke baserria lurzoruagaz.
290.000 €

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun.
125.000 € / E.E.Z=F

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua.
153.000 € / E.E.Z=E

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea.
620.000 € / E.E.Z=E

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz.
420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.

//BERRIAK

DURANGO: Antso Eztegi. 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua.
192.000 € / E.E.Z:F

GARAI: Momoitio auzoa. Etxebizitza eraikitzeke lurzoruak. Aukera ezberdinak.

Botikak

BARIKUA, 23 · 09:00-09:00

BALENCIAGA EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 24 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BALENCIAGA EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

UNAMUNZAGA MURUETATORRE
2C - DURANGO

DE DIEGO INTXAURRONDO
22. - DURANGO

NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

CAMPILLO MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

JAIO-ABENDIBAR ERREKAKALE
6. - ELORRIO

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN TXIKI
OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE
ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO
ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 25 · 09:00-09:00

IRIGOIEN BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 26
· 09:00-09:00

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 27
· 09:00-09:00

UNAMUNZAGA MURUETATORRE
2C - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 28 09:00-09:00

CAMPILLO MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 29 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Zorionak, **Jon (905. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegi



13 udaberi, 13 uda, 13 negu eta udazken. Zorionak, **Lur**, udazkeneko hostorik bihurriena zarelako. Jarraitu haize freskoz mundua betetzen. Maitte zaittugu etxeko guztiok. Patxo potolo bat!



Gure etxeko txikiak handitzen. Zorionak bioi. **Oinatzek** abuztuaren 23an 5 urte eta **Malenek** irailaren 18an 9 urte. Muxu goxo bana etxekuen partez.



Aaaaaai ene, zertan ari gara? Aiaiaiaiaia ene... Zorionak, **Aspuru!** Astelehenien 31 ein zenduzan, baina badakigu ondino 15ak ospatzen zabizela. Earki ai zea.



Irailaren 26an **Haizeak** 20 urte egingo ditu. Zorionak, ama, Jabi, Aratz, Amets, Julen, Lur, Goku, Boo, Oreo eta Maguieren partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 18° / 12° ☁

ASTELEHENA ↓ 19° / 11° ☁

EGUAZTENA ↓ 19° / 11° ☁

DOMEKA ↓ 18° / 11° ☁

MARTITZENA ↓ 17° / 11° ☁

EGUENA ↓ 18° / 12° ☁

Eskelak



**Ramon
Altube Loiti**

Elorrioren hil zen, 2022ko
Irailaren 15ean, 82 urte zituela

Lehen gurekin eta guretzat;
hemendik aurrera gugan.
Beti arte!

Etxekoak.



XXIII. EUSKAL ELIKADURA ETA ARTISAUTZA AZOKA



Olaburu kalean ☉ 11:00-14:00 Urriak 2 2022

- Txahala
burduntzi erara

- Artisautza

- Umeentzako
tailerrak



"Ligatzeko uste dut dantzan hobeto modaltzen naizela sukaldean baino"

Durango bizi den Mikel Sarrionandia 'Jateko modukoa' telebista saioan ikusi dugu aste honetan. Esperientzia gustatu zaiola onartu du, sukaldaritzan ikasteko asko duen arren



Mikel Sarrionandia Mariño

'Jateko modukoa' telebista saioan parte hartu du
LA HABANA (KUBA) | 2002

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Urtebete inguru da Mikel Sarrionandia Durango bizi dela, eta kazetaritza ikasketak hasi berri ditu. ETB1eko 'Jateko modukoa' telebista saioan ikusi dugu, sukaldaritza eta hartu-emanak uztartzen dituen saioan. Esperientzia gomendagarria izan dela dio.

Zelan animatu zinen 'Jateko modukoa' telebista saioan parte hartzera?

Kasualitatez izan zen. Castinga egiten zebiltzala eta animatuko ote nintzen galdetu zidaten eta, oporretan nengoenetz, eta ez neu-

kanez gauza handirik egiteko, baietz esan nuen. Esperientzia bizitzeko animatu nintzen, telebistaren mundua ezagutzeko, zer sentitzen den jakiteko. Lehenengoz parte hartzen nuen casting batean. Oso gustura egin nuen, barre mordo egin nuen.

Eta zelakoa izan da esperientzia?

Esperientzia ederra izan da, gomendagarria. Oso ondo pasatu dut eta lagunak egin ditut. Gainera, asko sartu nintzen paperean, bachata ere dantzatu nuen! Benetan gustura aritu nintzen.

Erreplikatzeko moduko esperientzia izan da orduan?

Esperientzia ederra izan da, gomendagarria. Oso ondo pasatu dut eta lagunak egin ditut

Bai, baina kontrara, nik kozinatu barik inork kozinatutakoa nik probatzeko. Aukera hori izatea gustatuko litzaidake.

Sukaldaritzaren bitartez jende berria ezagutzeko aukera izan duzu 'Jateko modukoa' saioan. Zelan moldatzen zara sukaldean?

Justutxo nabilela esango nuke, ikasteko prozesu horretan murgildua nago oraindino, apurka-apurka. Moldatzen naiz zeozertxo, baina asko dut ikasteko.

Orduan, erronka handia izan da zuretzat errezeta eduki barik zegokion platera kozinatzea.

Bai, kutxa zabaldu eta osagaiak ikusita prestatu behar genuen platera, eta ni neu behintzat harrituta geratu nintzen zeuden osagai guztiekin. "Zer egin behar dut nik zelan deitzen den ere ez dakidan osagai honegaz?", pentsatu nuen. Beste mahaletan zer egiten zebiltzan ikusita, apur bat disimulatuz... moldatu naiz.

Uste duzu janari on bat prestatuta inor konkistatu daitekeela?

Horregaz bakarrik ez dut uste, egia esan behar badut. Beste zeozer behar da.

Ez dut euskal gastronomia gutxietsi gura, oraindino harri eta zur eginda nago. Baina gastronomia kubatarrazagaz herrimina dut oraindino

Kubatarra izanik, sukaldaritza baino gehiago dantza gurago izango duzu ligatzeko.

Bai, dantzagaz hobeto moldatzen naizela esango nuke. Kubako lagunekin konparatuz gero, galtzen irtengo naiz, baina, hemen, ostera, irabazten. Momentuan sortzen denaren arabera da ligatzearen kontua.

Zein jakigaz identifikatzen zara zu?

Ez dakit, ba! Arroz-esneagaz, adibidez. Gozoa naizelako, atsegina (barrez).

Zer gurago duzu, euskal gastronomia ala kubatarra?

Ez dut euskal gastronomia gutxietsi gura, oraindino harri eta zur nago euskal gastronomiagaz, egokitze prozesuan galduta. Baina gastronomia kubatarrazagaz herrimina daukat oraindino. Beraz, bat aukeratzekotan, gurago dut gastronomia kubatarra, askogaitik.

Lauhortza

Mertxe Mugika Balanzategi
AEK



Ohitura kontuak

Duela gutxi, Ibon Izak -Zinemak euskaraz ekimenaren bozeramailea- Orlando tomatearen metafora erabili zuen. Bere esanetan, Orlando tomate jatera ohituta dagoen umeak ez du etxeko tomaterik nahi, nahiz eta azken hau gurea eta baserrikoa izan. Arrotza egiten zaio; ez du zapora hori gura, bestea gurago. Metafora horrek ederto batean azaltzen du zer gertatzen den euskararen erabilerean auzian. Gaztelaniak hartzen ditu bazter guztiak, gaztelaniara ohitzen gara eta, ondoren, euskara arrotz egiten zaigu. Hau marka! Antzeko adibideak ugariak dira, tamalez. Niri adibide bik eman didate atentzioa azkenaldi honetan. Baga: ETB1ek ez du azkeneko lau hilabeteotan pelikula bat bera ere euskaraz eman; aldiz, ETB2k 130 pelikula eman ditu, guztiak gaztelaniaz, jakina!. Biga: Kontxako Bandera telebistatik ikusten, patroien aginduak nagusiki gaztelaniaz, Bandera irabazleen eta jarraitzaileen adierazpenak gaztelania hutsez ETB2n... baina, hori bai, bistan Euskaraldiko pankarta.

Hortxe ari gara lanean euskara erdigunera ekartzeko; hamaika ekimen, saio eta baliabide jartzen dira horretarako, eta gero, benetan eragiteko aukera dagoen gehienetan gaztelaniak hartzen du zentralitate. Gaztelaniatik elikatzen ari gara uneoro, eta gero, euskarara etortzeko esaten diogu gizarteari; ohiturak aldatzeko eta praktika berriak sortzeko, benetako praktika euskara bazterretik ateratzea eta erdigunera eramatea denean. Noiz konturatuko ote gara? Bitartean, iraila ere badoa aurrera, eta datozen asteetan milaka izango dira euskara ikasten edo hobetzen hasiko direnak. Agian, tomate Orlando jaten ohituta egongo dira, baina euskaltegieta-ko irakasleok ahaleginduko gara gurea den zaporera erakartzen, euskararekin goza dezaten!

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com